

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



Aldarri moreak kalean

Emakumeen Egunak udazkenerako greba feminista orokor baten deialdia utzi du / 12-13

Irurtzongo Udalak %6,73 handiagoa den aurrekontua onartu du, bi inbertsio nagusi dituen / 9

Urritzolan, 17 biztanleko herrian, kale berri bat eta bi etxe berri eraikiko dituzte / 5

Leire Mezak eta Ruben Trinidadek Luis Martilen lekukoa hartu dute Shotokan karate klubean / 16-17

Haizea Ramirez de Aldaren eta Unai Razkinen Himalaiako erronka Irurtzongo Mendi Jardueretan / 18

Hiru urteren ondoren Tarima Beltza antzerki taldeak lan berria mustuko du: 'Sin salida' / 21

HARREMANETARAKO: publi@guaixe.eus - 661 523 245

"50 urte, eta oraindik egunero zerbait ikasten dut"

JUANA COBOS DE LA TORRE TINDATZAILEA

Bost hamarkada eman ditu Altsasuko tindategian; hamalau urterekin osaba eta izebaren enpresan lanean hasi zenetik

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1973ko otsailaren 11n iritsi zen Juana Cobos de la Torre Jaengo herri batetik Altsasura, hamalau urte zituela, "eta jarraian tindategian lanean hasi nintzen". Bost hamarkada eman ditu tindategian lan egiten. Urte hauetan "asko ikasi" duela esan du, baita "disgustuak" ere. Jubilatzeke urte batzuk gelditzen zaizkio, baina Garbi tindategia ixteak "pena" ematen dio.

Noiz hasi zinen tindategian lanean?

50 urte eman ditut tindategian. 1973an hasi nintzen lanean. 14 urte nituen. Ez dut besterik egin nire bizitzan. Altsasura iritsi eta jarraian hasi nintzen. Jaendik, Andaluziatik, etorri nintzen. Nire izeba bertakoa zen ere eta Ordiziara tindategi batera lan egitera etorri zen. Bertan ikasi zuen, eta gero Altsasura etorri zen eta osaba ezagutu zuen. Osaba hemengoa zen, eta tindategia jarri zuten. Ni eskola bukatu eta etorri nintzen. Ez neukan aitarik, eta izeba aitaren arreba zen. Ondoren, ama eta ahizpa etorri ziren.

Beraz, tindategia aurretik zegoen?

Tindategia osaba-izebena zen. Beste eraikin batean zegoen. Burunda kalean orain dauden eraikinak egiten hasi ziren, eta etxe bat bakarrik gelditzen zen. Hor zegoen. Eraikin berriak egiten hasi zirenean, zimenduak eraikitzerakoan etxea erori zen. Hori duela 40 bat urte izan zen, eta gaur egungo lokala ireki genuen. Ni hasi nintzenean hamabost urte baino gutxiago izango zituen tindategiak. Tindategia osabaren anaia batekin zeukaten, eta gero banandu ziren eta anaiak beste bat jarri zuen, gerora kendu zutena. Duela 29 bat urte nago bakarrik, osaba eta izeba jubilatuta zirenetik.

Nolakoak izan ziren hasierak?

Lehen askoz lan gehiago zegoen; orain baino askoz gehiago. Beroki asko garbitzen ziren, jendeak desegiten zituen, eta solteak deitzen genien. Gero josten zuten berriz. Tindatze asko egiten ziren ere. Guk orain ez dugu tindatzen. Baina nire osabak egiten zuen. Arropa garbigailuak ere zaharrak ziren. Nik bat izan nuen; brontzezkoak ziren eta tutu batek aurrera eta atzera egiten zuen.

Oso zaharra zegoen, eta kendu nuen. Praka pila bat daramatzat plantxatuta. Hori bai egiten nuen. Izebak lisatzeko zeuden praka guztiak niri ematen zizkidan. Ez dakit zergatik. Berak amerikarrek lisatzen zituen, eta nik prakak. **Gaur egungo moduarekin alderatuz, nola garbitzen zen?**

Hori ez da aldatu. Lehorreko garbiketara zen eta da, berdina. Makina ere antzekoa da. Lehorrean garbitzeko makina da, eta percloroetileno deitutako produktu bat erabiltzen da. Gaur egun lehen egiten genuenaren berdina da.

Lehen lan gehiago zegoen, etxean garbigailurik ez zegoelako?

Ez. Jendeak arropa ekartzen zuen lehorrean garbitzeko. Arropa beste material batzuekin egin zegoen; oihalak, artilea... Orain arropa sintetikoagoa da. Beraz, berokiak, trajeak eta abar garbitzeko ekartzen zituzten. Banketxeetan eta bulegoetan lan egiten zutenek trajeak erabiltzen zituzten. Gerora ezkontzetako trajeak eta jantziak ere ekartzen zituzten. Baina garai horretan ezkontzetan ez zen gaur egun

bezala jantzen. Lehen ezkonberrien jantziak ekartzen zituzten gehienbat. Ezkontzako trajeak duela gutxi samar hasi naiz garbitzen. Militar jantziak ere ekartzen zituzten, garai horretan soldaduska derrigorrezkoa zelako eta garbitzera ekartzen zizutzelako. Lan asko zegoen, jendea tindategira asko etortzen zen. Hasi nintzenean, osabaren tindategia, bere anaiarena eta Zumalakarregi plazan beste bat zegoen ere. Hiru tindategi zeuden, eta lana bazegoen hirurendako. **Zeintzuk dira lehorrean garbitu behar diren oihalak?**

Artilea, biskosa, oihala... Orain arropen konposizioa asko aldatu da, eta poliester asko dago. Baina badago lehorrean garbitu behar den poliesterra ere. Hainbeste urtetan etapa asko bizi izan ditut.

Zeintzuk dira etapa horiek?

Esan bezala, gogoratzen naiz hasierako solte horietaz, gero josten ibiltzen ginela. Tindaketak ere gogoan ditut. Arropa asko modistek egiten zituzten, arrehun asko zituzten eta lehorrean garbitu behar ziren. Emakumeen trajeak, gonak eta abar artilezkoak ziren. Edredoiak eta horrelako gauzak oso modernoak dira. Lehen ez ziren ohegaineako akoltxatuak erabiltzen. Mantak eta abar bai garbitzen genituen. Edredoiak ekartzen hasi zirenean, duela bi hamarkada inguru, jarri behar izan genituen alanbre batzuk zintzilikatzeke. Gaur egun lumadun edredoiak eta berokiak eta abar

"LEHEN ORAIN BAINO ASKOZ LAN GEHIAGO ZEGOEN; ARROPA BESTE MATERIAL BATZUEKIN EGINA ZEGOEN"

"ARROPA ZAIINTZEN ZEN EZIN ZELAKO DENBORALDI BAKOITZEAN BERRIA EROSI"

ekartzen dituzte. Jendeak arropa askoz gehiago zaintzen zuen ezin zuelako denboraldi bakoitzean arropa berria erosi. Zenbat modista zeuden? Eta orain? Jendeak arropa zaintzen zuen, asko iraun behar zuen. Moda aldatzen joan den heinean hau ere aldatuz joan da. Lehen traje praka pila bat nituen, eta orain lerro bat betetzen dudanerako... Den-dena aldatu da. **Moldatzen joan zara.**

Bai, noski. Eta hanka sartu dut askotan, nola doan ikasi arte. Akatsekin ikasi dut.

Azken urteetan zer ekartzen dute gehiago?

Gabonetatik aurrera ez da asko sartzen. Garai batean jaunartzeak zeuden, eta lan asko egiten genuen garai horretan. Baina gaur egun ez denez jaunartzerik ia egiten... Nesken jantziak *organdi*-koak ziren, eta arretarekin lixatu behar ziren. Lan handia zen. Orduak eta orduak pasatzen genituen. Oraindik baten bat ekartzen dute. Jendeak esaten dit: "Jaunartzeak hasten direnean lan asko izango duzu". Lehen bai! San Jose garaian hasten zen mugimendua. Gabonetatik aurrera jaisten zen, eta gero martxoan mugimendua hasten zen. Baina krisi ekonomikoarekin nabarmen jaitsi da lana. Udan ere asko jaisten zen lana. Udaberriari eta udan ezkontzetako jantziak izaten dira gehienbat. Gaur egun festa jantziak eramaten direnez, horiek ekartzen dituzte. Nik ekartzen duten guztiarekin ahal dudana egiten dut. Badira gaizki egin ditudan gauzak ere, eta horiek asko sufritzen dut.

Ogibidearen parte bat da, ezta?

Akatsetatik ikasten da. 50 urte daramatzat honetan, eta egunero zerbait berria ikasten dut. Modu batera edo bestera probak egiten ditut hobekien egiteko.

Nolako da garbitzeko prozesua?

Lehenengo gauza da begiratzea orbanak non eta nola dauden. Orbanak kentzeko zera batekin kentzen ditut, edo kentzen saiatzen naiz, eta lehorrean garbitzeko gailuan sartzen dut. Ordu bat inguru egoten da, eta hortik lehorra ateratzen da produktuaren



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Juana Cobos de la Torre tindatzailea Garbi tindategian.

lurrinarekin garbitzen delako. Nahiz eta garbitzen ari denean ura dela iruditu, ez da ura. Gero atera, zintzilikatu eta lixatzen dut. Batzuetan, agian, orbana ez bada ongi kendu, berriz errepi-
katzen dut prozesua, behar diren aldiak guztia garbi-garbia gelditu arte. Ni saiatzen nahiz ahalik eta hoberean egiten, eta hainbeste urteren ondoren zerbaiz jakingo dudala uste dut. Normalean makina bete arte itxoiten dut eta horregatik ezin dute arropa ekarri eta egun berean eraman. Ez bada urgentzia handia dutela, normalean aste hasieran ekarri eta bukaeran eraman dezakete.

Zeiintzuk dira orban ohikoenak?
Gehien kostatzen dena ardoa da. Baita odola ere. Besteek ez dute arazo handirik ematen. Olioia, esaterako, lehorrean oso ongi kentzen da. Ez bada aldi askotan garbitu dutela eta, orduan, ez dagoela kentzeko modurik, olioak orokorrean lehorrean oso ongi garbitzen dira. Gasolioa, gasolinak eta horrelakoak guztiz joaten dira. Egia da ere badirela arropa batzuk lehorrean garbitzea onartzen ez dutenak. Nik egiten dudana da etiketa guztiak irakurri eta jartzen duenaren arabera garbitzen dut. Hala ere, badira aldiak fabrikatzaileek hanka sartzen dutela edo ez dutela ongi etiketatzen, eta zerbaiz gertatzen bada gero ez da inor arduratzen. Nik hartzen dut ardura guztia.

Zer gailu erabiltzen dituzu?

Lehorrean garbitzeko gailua, arropa garbigailua, lehorgailua eta plantxa. Duela 29 urte tindategiarekin gelditu nintzenean lehorrean garbitzeko beste makina bat ekarri genuen, askoz txikiagoa zena. Hori apurtuzenean hau ekarri genuen, eta dagoeneko gaixoa nahiko erabilia dago! Hogeitabat urte izango ditu. Orde-nagailu batekin doa, eta aurrekoa dena eskuz programatzen zen. Krisiaren aurretik dena automatikoki jartzen nuen ordenagailuarekin, eta egunean behar nituen alditan jartzen nuen. Gaur egun eskuz programatzen dut arropa gutxi sartzen dudalako. 2007ko krisi ekonomikoaren ondoren jaitziera izugarri handia izan da. Asko nabaritu nuen, eta nabaritzen dut. Gainera, imajinatzen dut gaur egungo gailuak askoz modernoagoak izango direla.

Eskuz lisatzen duzu?

Bai. Dena eskuz. Nik ez dut lisatzeko makinarik. Lehorrean garbitzeko makina erosi genuenean gailu batekin lixatzeko makini deitutako bat oparitu zidaten, baina ez dut inoiz erabili ez nintzelako ongi moldatzen. Ez nuen ohiturarik, eta beti eskuz egin dugu. Arroparen arabera hamabost minutu izan daitezke edo orduerdi.

50 urte daramazu, eta jarraituko duzu?
Ni ez naiz kexatzen. Lana jaitzi da, eta garai hau gutxien lan egin

dudan denboraldia da. Baina bakarrik nagoenez niretako baliotit. Hori bai, nekatuta nago. Urteek ez dute barkatzen.

Eta ondoren?

Nire alabak ez dira geratuko. Ez dute nahi, eta normala da. Urte asko dira, eta asko ikusi dute. Hemen hezi dira. Ni oso erreta nago, baina aldi berean pena ematen dit. Jendeak galdetzen dit ea noiz jubilatuko naizen, eta erantzuten diet ez dakidala. Ez dakit ni jubilatuko naizen edo makinak jubilatuko nauen. Alabaren bat geldituko balitz inbertsioa egingen genuke, baina bestela ezin dut gailuak oso garestiak direlako. Eta hori beti bigarren eskukoak erosi izan ditudala! Baina, hala ere. Momentuz ez dut erretiroaren ezer begiratu. 64 urte ditut eta urte batzuk jarraituko dut. Hiru urte inguru nik uste egongo naizela.

Lana badago.

Bai, eta benetan pena ematen dit. Herrian pixkanaka komertzio asko ixten ari dira, eta pena handia ematen dit. Norbait etortzen bada eta esaten badu ikasi nahi duela ni irakasteko prest nago. Sakana osoko jendea etortzen da; herrietako jende asko etortzen da. Lakuntzatik jende asko, Etxarritik... Lehen herrietatik arropa jasotzera joaten ginen. Hasieran nire osaba joaten zen, eta gero nire senarra. Pentsa duela 50 urte jendeak ez zeukala ko-

txerik gaur egun bezala! Orain Altsasura etortzeko ohitura gehiago dute, edozertarako etortzen dira eta gauzak tindategira ekartzeko baliatzen dute.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Jendearekin egotea eta hitz egitea. Jendearekiko harrera hori izatea. Azken finean, urte asko dira eta jendea ezagutzen duzu. Sartzen direnean badakizu nondik joango diren; dena ezagutzen duzu. Ezkontza asko, jaunartzeak... Jendea nolakoa den ere ezagutzen duzu, exijentea, ez hain exijentea... Denetarik dago horretan ere.

Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Bada, lisatzea ere gustatzen zait. Izango da ez dudalako bizitzan besterik egin, baina jendeak esaten duenean ez zaiola lisatzea gustatzen, ni oso gustura egoten naiz. Gaizki sentitzen naiz, adi-

"AKATSETATIK ERE IKASTEN DA; MODU BATERA EDO BESTERA AHALIK ETA HOBERENA EGIN DUT"

"MODA ALDATU DEN HEINEAN TINDATEGIKO LANA ALDATU DA ERE; ORAIN GUTXIAGO EKARTZEN DA"

bidez, botoi bat apurtzen denean. Disgustu handia hartzen dut. Gauza txiki horiekin disgustu handia hartzen dut. Lan bakoitzak badauka bere gauza eta komertzio batean jendearen aurrean egon behar zara, baina hemen gainera ongi egin behar duzu. Askotan erosi berria baino hobe gelditzea eskatzen dute, eta ez bada horrela gelditzen, azalpenak eman behar dituzu. Horrelakoetan oso gaizki sentitzen naiz eta oso gaizki pasatzen dut. Baina esperientziatik asko ikasten da, denak esperientziarako balio du.

Baina kasu horiek gutxienekoak izango dira, ezta?

Bai, gutxienekoak dira. Baina oso une txarra pasatzen dut besterik gabe, esan bezala, botoi bat apurtzen bazait. Adinarekin ikasten joan naiz, beste bat erosi eta konpondu. Baina disgustu asko izan ditut.

Zergatik eraman arropa tindategira?

Azkenean, etxean garbitu ezin daitezkeen gauzak garbitzeko eta etxean kendu ezin diren orbanak kentzeko ekartzen ditu jendeak. Orain gauza asko Internet bidez erosten direnez eta oso tolestuta etortzen direnez, lisatzeko ekartzen dizkidate. Lumazko edredoak eta arropak etxean garbituta ez direlako ongi gelditzen eta badi-relako lumazko arropak lehorrean garbitu behar direnak; ez dute hondatu nahi eta ekartzen dituzte. Badira dagoeneko hondatu dituztenak eta konpontzeko ekartzen dizkidatenak ere... Garbitzeko zailak izaten diren artilezko jertseak ere ekartzen dituzte eta horrela pila bat irauten dute, bestela artilea trinkotzen delako. Baditut bizitza osoko bezeroak. Hasi nintzenean oso gazte ezagutu nuen adineko jende asko ere ezagutu dut eta pixkanaka hiltzen joan dira. Faltan botatzen duzu jendea. Bizitza nolakoa den ikusten joaten zara.

Ez duzu inoiz planteatu beste zerbaiz egitea?

Zer planteatu behar nuen? Eskolara justu-justu joan nintzen. Nire ahizpak ikasketak egin zituen; niri eraman behar zidaten baina azkenean ez. Ama 30 urterekin alargun gelditu zen bi alabekin. Tindategiko izeba aitaren arreba zen, eta asko lagundu digu betidanik. Osaba eta izeba jubilatuta zirenean nor gelditu behar zen? Ba ni. Honetan egin dut ibilbidea. Bizitzen jarraitu behar genuen. Gauzak etortzen joan ziren.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Nafarroaren gurutzegrama

Mahaira eserita, zerbitzaria etorri zain. Anak (A) hasi du hizketa bidea. Jakin duzue Nafarroako Administrazio Auzitegiak galarazi duela Orkoien hainbat lanpostutan euskarazko profila eskatzea? Bittoriok (B), independentzia behar dugu! Ak, Nafarroarena? Bk, Euskal Herriarena. Euskal Herriarena? Nafarroa Osoarena. Orduan, Nafarroa zer da? Nafarroa Garaia. Baina, ez dugu esaten Nafarroa Garaiko Gobernua, Nafarroa beti Nafarroa izan da. Ez, Nafarroari, Nafarroa Garaia esan behar zaio, eta Nafarroako edo Euskal Herriko Estatuaz hitz egitean, pareko izan behar dute. Nafarroa eta Euskal Herria esanahi berdinarekin ez al da nahasgarria? Beno, Nafarroa historikoari erreparatuta, hala behar du. Baina, onartuko al dute gaurko nafarrek Nafarroari Nafarroa Garaia deitzea, egungo Nafarroa izan baita historikoki Nafarroako Erresumaren erroa eta enborra. Bada, egungo Nafarroa Nafarroa Garaia behar du. Ez al zen antzeko gertatu *Nafarroa Euskadi da* lelo harekin? Hura, gaindituta dago, orain, Euskadi baskongadak dira. Baina, hango unibertsitateari Euskal Herriko Unibertsitatea deitzen diote, Euskadiz gain Euskal Herria izena ere haiena egin dute; bestalde, hango politikariek biak baliatzen dituzte barra-barra probintziei erreferentzia egiteko.

Hala ere, independentzia Euskal Herriarekin edo Nafarroarekin lotu behar da. Orduan Nafarroa, barkatu, Nafarroa Garaia, Euskal Herria edo Nafarroa horretan Gipuzkoa edo Bizkaia probintzien pareko izanen da politikoki. Jakina. Baina, Nafarroak historikoki eta gaur egun politikoki ere, Gipuzkoak edo Bizkaia baino erabakitze ahalmen gehiago ditu. Probintzia bakoitzak bere foruak izanen lituzke. Orduan, Estatu horretan, Nafarroa Garaian, Osasunbidearen ordezkariak, edo, foruzainen ordezkariak izanen genituzke? Ez, ez, Nafarroan Osasunbidea eta Foruzaingoa. Eta Hezkuntza sistema eta beste ahalmenak? Horiek ere Nafarroa Garaiaiek. Orduan, ez dira lau herrialdeak eskuduntza berdinekoak izango. Bada, ematen du ezetz. Hortaz, etorkizuneko egitasmo hori ez litzateke izan behar historikoki erabili izan den Nafarroa (Garaia) eta probintzien arteko aliantza moduko bat, vasco-navarra edo Euskadi-Nafarroa edo horrelako zerbait, baina bakoitzak bere burujabetzari eutsiz?... Solasaldian, delako independentzia horrek, Nafarroan, euskararen estatusari eta erabilerari nolako ekarpena egingen liokeen argitu gabe, zerbitzaria etorrita, Nafarroako ala Arabako Errioxako ardoak eskaini ditu. Ak eta biok Nafarroakoa eskatu dugu, eta Bk Arabakoa. Denak, barne hausnarrean murgildu gara ardoa poliki-poliki dastatuz.

HARA ZER DIEN

Auzolan, etxien lan da kanpuen lan

URDIAINGO GAZTE ASANBLADA

Gure asanblada gaur egun zerbait bada, auzolanei esker izan da. 2013. urtean gure ibilbidea hasi genuenetik ekintza asko egin ditugu auzolanean. Auzolana tresna ezin hobea da herritarren arteko elkarlana bultzatzeko. Ideia hori islatu nahi izan dugu gure kamisetan leloan: *Antolakuntza eta auzolanaz herria eraiki*.

Auzolana eskola da gazte askorentzat, aurretik sekula egin gabeko lanak egin behar izaten baitira. Erratza pasatu edo pareta bat margotzea bezalako lan sinpletatik hasi eta ehun lagunendako koinatu edo argindar instalazioa egiteraino. Denetik ikasten da auzolanean.

Baina dena ez da eskulana, abilezia sozialak ere lantzen dira. Auzolana talde lana den heinean, taldekideekin hartu-eman dago. Ardurak hartu, laguntza eskatu, ideiak eman, iritziak partekatu, eta, nola ez, besteei lekua uzten ere ikasi behar da. Askotan laguntza kanpoan ere eskatu behar izaten da. Aukera hau aprobetxatu nahi dugu eskerrak emateko azken urteotan lagundu diguten guztiei.

Bada auzolana gainerako lanetatik bereizten duen ezaugarri garrantzitsu bat: fruituak ez dira indibidualak, baizik eta kolektiboak. Auzolanean ez zara zuretzat bakarrik ari, taldearentzat baizik.

Dena den, taldearentzat lan egitea ondo dago, baina

betiere etxeok ahaztu gabe. Askok primerakoz garbituko zuten plater bat herri bazkari batean. Beti dago lehen aldi bat, baina ez dago beste urte bat itxaron beharrik festak berriro iritsi eta bigarren platera garbitzeko.

Gaztetxean dabilenak ongi daki espazioa ez dela bakarrik mantentzen. Nahikoa dira egun gutxi batzuk bazterrak hautsez eta amegunez betetzeko. Etxean ere berdin gertatuko litzateke betikoek garbituko ez balute.

Ez ditzagun utzi zaintza lanak betikoen gain! Urdiaingo esaera zaharrak dio: *Auzolan, etxean jan eta kanpoan lan*. Baina, egin dezagun etxean lan eta kanpoan lan!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

Telegram kanala

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirrolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Eskuin aldean eginen dira etxeak. Egun herriak 17 biztanle ditu. ARTXIBOA

Urritzolan bi etxebizitza eraikiko dituzte aurten

Herriaren iparraldean eraikiko diren familiabakar erakoak izanen dira. Etorkizunean beste bat jaso liteke

URRITZOLA

Elkartea, eliza eta apaiz etxea kenduta, Urritzolak gaur egun 14 eraikin ditu, baina beste bi etxebizitza familiabakar izanen ditu. Eta hirugarrena eraikitze-ko aukera izanen da. Izan ere, Arakilgo hirigintza arauen aldaketa egituratzaile bat behin betiko onartu du Nafarroako Gobernuak. Ondorioz, lurzoru urbanizaezina zena urbanizagarri bihurtu da eta, Arakilgo Udalak jakinarazi duenez, bertan hiru etxebizitza eraikitzen hasiko dira aurten. Hirigintza araudiaren aldaketa horren sustatzailea Urritzolarekin familia lotura duen boskote bat da, herriarekin lotura handitu nahi duena. Urritzolan etxeak eraikitze-ko lurrik ez zegoelako eman dute pausoa, eta haiendako izanen dira eraikiko diren hiru etxebizitzak. Etxebizitzak sustatzaileen lurretan eraikiko dira.

Bi etxeetara joateko kale berri bat eginen da, elizarako bidean ezkerretara. Kale horrek Zubitxoko bidearekin bat eginen du, eta, beraz, oinezko eta ibilgailuek San Pedro kalean gaur egun dagoen etxadiari buelta emateko aukera izanen dute. Eraikin berriak elizarako bidea baino lauzpabost metro beheragoko altueran eraikiko dira.

Datuak

Hirigintza jarduerak guztira 3.835,21 metro karratu hartuko ditu. Haietatik 700,65 m² elizarako bidean dauden etxeen atzean berdegunea egiteko izanen dira.

Horrek urbanizazio berria eta egungo herriaren arteko integrazioan lagunduko du. Berdegunea 605,74 m²-ko azalera izanen duen kaleak hartuko du. Beraz, erabilera publikorako 1.306,39 m² emanen dira. Gainontzeko 2.528,83 m²-ak etxebizitza erabilera pribaturako izanen dira. Haren barruan etxebizitzarako gehienez 900 m² eraiki ahalko dira; betiere, beheko solairua, lehen solairua eta teilatupea izan beharko dituzte. Kale berrirako sarreran ibilgailuak aparkatze-ko hiru plaza izanen dira.

Sustatzaileek aurreikusi dute urbanizazio lanek 90.900 euroko aurrekontua izanen dutela, haiek bere gain hartuko dute. Bestalde, hirigintza aprobetxamenduengatik sustatzaileek udalari lurren %10 eman beharko liokete, baina Urritzolan hornidura berririk behar ez denez, udalak lurak beharrez 16.000 euro inguru jasoko ditu.

Sua elkartearen

Urritzolako elkartearen batzarra zuten igandean. Bilera hasi aurretik, elkartea epeltzeko, han elkartu ziren bi herritarrak sua piztu zuten eta kontu kontari gelditu ziren. Hizketan ari zirela konturatu ziren tximinia ondoko egurrak su hartu zutela. Suhiltzaileak deitu zituzten, baina bitartean, teilatura igo, teila batzuk kendu eta mauka batekin ura bota zuten sua itzaltzeko. Lan hori Cordovillako parkeko suhiltzaileek errematatu zuten. Suak eragindako kalteak konpontzen ari da kiskusgilea.

Udalak berritzeko 121 zinegotzi aukeratu behar

Ibarreko 15 udalak maiatzaren 28an eginen diren udal hauteskundeetan bidez berrituko dira. Udalerri bakoitzari dagokion zinegotzi kopurua bere biztanleriaren arabera erabakitzen da. Duela lau urteko zinegotzi kopuru bera aukeratu beharko da

SAKANA

Duela lau urteko udal hauteskundeetan bezala aurtengoetan ere 121 zinegotzi aukeratu dira Sakanako 15 udaletan. Zinegotzi kopurua erabakitzen duen populazio mailetan aldaketarik ez denez izan, kopurua errepikatzen da. Izan ere, 100 pertsona arteko udalek 3 zinegotzi dituzte, eta 101etik 250 artekoek 5. Zerrenda irekiak dira eta pertsonen ematen zaie botoa.

Gainontzeko udaletan zerrenda itxien sistema dago, hautagaitzari ematen zaio botoa eta haien botoen arabera osatzen da udala. Sakanako udalen osaketari dagokionez, 251 eta 1.000 biztanle arteko udalek 7 zinegotzi dituzte, 1.001 eta 2.000 artekoek 9, 2.001 eta 5.000 artekoek 11 eta 5.001 eta 10.000 artekoek 13. Azken kasua Altsasurena da, eta hamaikana zinegotzi dituzte Irurtzunek eta Etxarri Aranatzek. Bederatzina zinegotzi dituzte, berriz, Lakuntzak, Arbizuk eta



Hauteskundeetan botoa ematen. ARTXIBOA

Olatzagutiak. Zazpi zinegotzi dituzte zazpi udalek: Arakil, Uharte Arakil, Ergoiena, Bakai-ku, Iturmendi, Urdiain eta Ziordia. Azkenik, bosna zinegotzi aukeratu behar dira Irañetako eta Arruazuko udalak berritzeko.

Zinegotzi kopurua

Udalerria	Zinegotziak
Altsasu	13
Arakil	7
Arbizu	9
Arruazu	5
Bakaiku	7
Ergoiena	7
Etxarri Aranatz	11
Irañeta	5
Irurtzun	11
Iturmendi	7
Lakuntza	9
Olatzagutia	9
Uharte Arakil	7
Urdiain	7
Ziordia	7
Sakana	121

sarea

Aralar eta Karrape irratiko esatariekin

Astelehenetik ostiralera
11:05ean
Beleixe irratiari

...

bla

!?

beleixe

Online entzuteko:
www.guaixe.eus

Enplegurako prestakuntza eskaintza LHn

Sakana Lanbide Heziketa institutuak hamabost ikastaro hartuko ditu aurten, guztira 1.020 ikasketa ordu izanen dira. Langabeek, langileek edo behar kolektibo zaurgarrietako pertsonen profesionaltasun ziurtagiria eskura dezakete

SAKANA

Hezkuntza Departamentuak enplegurako prestakuntza zabala aurkeztu du *Behar duzun bultzada* lelopean. Guztira, 361 heziketa jarduera eta 52.923 prestakuntza ordu emanen dira 2023ko lehen sei hilekoan. Prestakuntza eskaintza hori langabetuendako, lanean ari direnendako eta kolektibo zaurgarriendako da. Langabeek Sakanan eskatzen diren langile profiletako batean ikasteko aukera izanen dute. Lanean ari direnek dituen ikasketak osatu ditzakete. Bai batzuk bai besteek prestakuntza bukatzean kualifikazioaz aparte eza gutza horiek dituenaren akreditazio ofiziala jasoko du, profesionaltasun ziurtagiria. Hala jakinarazten da pertsona hori gai dela ikasitako lan horiek egiteko.

Eskaintza hori hartuko duten ikasketeen artean dago Sakana Lanbide Heziketa institutua. Aurten 15 ikastaro eskainiko ditu, haietako bi dagoeneko bu-



Ikasleak gelarako bidean.

katuta daude. Lau arlotako prestakuntza saioak izanen dira: biltegien kudeaketa, garbiketa, soldadura eta mendeko pertsonentzako arreta soziosanitarioa gizarte erakundeetan. Ikasketa edo ziklo horiek guztiak Sakana

LH institutuan ematen dira ikasturtean. Ziklo horiek berez hainbat prestakuntza moduluz osatuta daude eta enplegurako prestakuntza eskaintzan modulu horiek banaka ikasteko aukera eskaintzen da. Hala, lau moduluz osatutako ziklo bat epe desberdinetan ikas daiteke eta dagokion titulazioa jaso. Horretaz aparte, prestakuntza moduluak unitatez osatuta daude. Eta Sakana LH institutuak halakoak ere eskainiko ditu. Horren bidez ibarreko enpresetako langileen artean sumatu den prestakuntza gabeziak asetzeko aukera dago, dagoen premiari zuzendutako prestakuntza unitateak eskainiko baitira.

Heziketa jarduerak osatzen dituztenek 1. edo 2. mailako profesionaltasun ziurtagiriari lotutako prestakuntza modulua osatuko dute. 1. mailako ikasketak egiteko hizkuntza ezagutzea besterik ez da behar. Ikastaro bakoitzak 15 plaza izanen ditu.



Ainhoa Lopez de Goikoetxea Ganboa, atzean, hirugarrena ekuinetik. NUP

Bi ikasle unibertsitateko espediente onagatik sarituta

NUPen 2021-2022 ikasturteko graduako eta masterreko espedienterik onenen sariak jaso dituzte

ITURMENDI / ALTSASU

Graduko espedienterik onenetakoa izateagatik Nerea Misiego Torralba altsasuarrak saria jaso zuen. Berak Haur Hezkuntzako Irakasle gradua ikasi zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP). Masterreko espedienterik onenetako bat izateagatik, berriz, saria jaso zuen Ainhoa Lopez de Goikoetxea Ganboa iturmendiarrak. Berak Industria Ingeniaritzako Unibertsitate Masterra egin zuen unibertsitate publikoan.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) Ikasketen Amaierako Aparteko Saria eman zien

ikasleak 2021-2022 ikasturtean bukatu zituzten graduako 32 ikasleri eta masterreko 9ri. Ikasketen batez besteko kalifikazioa 8 edo altuagoa dutela egiaztatzen duten ikasleei ofizioski ematen die NUPek 300 euroko saria. Unibertsitateak sari kopuru jakin bat ezartzen du titulazio bakoitzeko. Saria irabazi izana ikasleentzako espediente akademikoan eta Tituluaren Europako Gehigarrian adierazten da. Ramon Gonzalo Garcia errektoreak eta Cristina Baiona errektoreordeak parte hartu zuten ekitaldi batean jaso zituzten sariak 41 ikasleek.

Prestakuntza eskaintza

Ikastaroa	Orduak	Maila	Noiz
Biltegitratzeko eragiketa osagarriak	80	1. maila	Apirilaren 12tik maiatzaren 4ra
Eskaerak prestatzea	40	1. maila	Maiatzaren 5etik 16ra
Zamak orga jasotzaileekin manipulatzeko	50	1. maila	Maiatzaren 17tik 30era
Eraikin eta lokaletako zoruak, hormak eta sabaiak garbitzea, tratatzea eta mantentzea	30	1. maila	Irailaren 18tik 25era
Barruko altzariak garbitzea	30	1. maila	Irailaren 26tik lastailaren 3ra
Eraikin eta lokaletako kristalak garbitzea.	30	1. maila	Lastailaren 4tik 12ra
Makinak erabiliz garbitzeko teknikak eta prozedurak	60	2. maila	Lastailaren 13tik 30era
Karbono-altzairuzko xafraz eta profitez estalitako elektrodoen bidezko soldadura, errutilo elektrodoekin	90	2. maila	Martxoaren 27tik apirilaren 28ra
Aluminiozko eta aleaziozko TIG soldadura	60	2. maila	Bukatuta
Karbono-altzairuzko egituren MAG soldadura	90	2. maila	Maiatzaren 2tik 25era
Altzairu herdoilgaitzezko eta aluminiozko MIG soldadura	90	2. maila	Bukatuta
Erakundearen eremuan esku-hartzeak antolatzen laguntzea	100	2. maila	Martxoaren 27tik apirilaren 26ra
Erakundeetako higiegi eta elikadura arretan esku hartzea	70	2. maila	Apirilaren 27tik maiatzaren 17ra
Erakundeetako arreta soziosanitarioan esku hartzea	70	2. maila	Maiatzaren 18tik garagarriaren 6ra
Laguntza psikosoziala, harreman eta komunikazio arreta erakundeetan.	130	2. maila	Garagarriaren 7tik garilaren 12ra



ARBIZUKO UDALA

11 ume, 11 gaztainondo

Arbizuko Udalak zuhaitz eguna antolatu zuen igandean. Urtero moduan joan den urtean herrian jaiotako umeen familiak izan ziren protagonistak. Ume kopuruaren arabera lana zuten San Joan ermitaren pareko zelaian. Egitekoa errazteko, zuloak eginak zituzten. Gaztainondoak landatu ondoren, elkartean auzatea izan zuten.

Lau pisu bloke birgaitzeko pausoa eman da

Geltoki auzoan daude. Inguratzaile termikoa hobetu eta igogailua jarri asmo dute

IZURDIAGA

Arakilgo Udalaren oniritzia jaso ondoren, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilari Jose Mari Aierdi Fernandez de Barrenak Izurdiaga

gako Geltoki auzoko lau pisuko blokeen esku hartze orokorreko proiektua onartu du, horretarako Foru Agindua sinatuta. San Migel Koloniako 5, 7, 8 eta 10 zenbakietako atarrietako jabeek sustatu dute proiektua. 1980an

jasotako eraikinak dira, eta multzo arkitektoniko homogeen bat osatzen dute. Lau blokeak bina-ka lotuta daude eta bi ilara paralelo osatzen dituzte. Jabeek eraikinen inguratzaile termikoa hobetu eta irisgarritasun unitbertsaleko araudia betetzeko igogailuak jarri nahi dituzte.

Sustatu badu ere, proiektua ez zaio aplikatuko San Migel Koloniako 10. atariko jabe erkidegoari. Dena dela, esku hartze orokorreko proiektuaren indarraldian, noiznahi jakinarazten ahalko

diote etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuari proiektura bildu nahi dutela, eta hori nahikoa izanen da proiektua atari horietan ere aplikatzeko.

Helburua da etxe sail hori birgaitzea, modu koordinatuan eta aurretik programatuta. Horrekin bilatzen da eskalako ekonomiak lortzea, bai ikuspuntu ekonomikotik (lizitazio bateratuak egiteko aukera, kudeaketa gastu txikiagoak), bai administratibotik (espediente bateratuak aurkezteko aukera, tramitazio azkarragoa),

eta, aldi berean, eraikuntzako eta arkitekturako konponbide homogeenagoak eskaini ahal izatea herrian harreman estua duten etxe sail edo eremuetan.

Sustatzaileek proiektua birgaitze bulegoan aurkeztu beharko dute, eta jabe-erkidegoek eskatu eta lortu beharko dute proiektu horiek behin-behinean kalifika daitezela birgaitze jarduketara babestu gisa. Horretarako, lau urteko epea dute, hala eskatuz gero, beste lau urtez luzatzea eska daitekeena.

Hilerria erabiltzeko ordenantza onartuta

Haren bidez kanposantuaren administrazioa, zuzendaritza eta zaintza arautu du Lizarragabengoako Kontzejuak. Lurreko hobien eta horma hobien erabilera epeak, horregatik ordaindu beharreko tasak eta beste zehaztuta gelditu dira

LIZARRAGABENGOA

Herriaren hegoaldean dago Lizarragabengoako hilerria. Orain arte hura gobernatzeko araudirik ez zegoela ikusita, eta bere eskumena dela jakinik, Lizarragabengoako Kontzejuak kanposantua administratu, zuzendu eta zaintzeko betebeharrak zehazten dituen ordenantza onartu du. Kontzejuaren egitekoen artean egonen dira, besteak beste: hilerria zaindu, garbitu eta egokitzea; lur, hilobi eta gainerako zerbitzuen antolaketa, funtzionamendua, banaketa, erabilera eta aprobetxamendua; hilobiak ehorzketarako erabiltzeko esku-bideen lagapena; jasotzea ezartzen

diren tasak eta eskubideak; osasun neurriak betetzea; hilotzak eta gorpuzkiak ehortzi, hobitik atera eta lekuz aldatzeko lizentziak ematea, hilotzen gaineko osasun araei jarraikiz; zerraldo, arropa, jantzi, hil-oihal eta bestelako gauzakien hondarrak suntsitzea, gorpuzkiak izan gabe ere hilobiak hustu eta garbitzerakoan agertzen direnak eta hilobien eta kolunbarioen tokia antolatzea.

Araudiaren arabera, hilerrian lurperatzeko eskubidea izanen dute honako egoera hauetakoren bat betetzen duten pertsonak: heriotzaren unean Lizarragabengoan erroldatuta daudenak,

heriotza gertatu zen unean Lizarragabengoan erroldatuta ez egon arren, lehen bizilekua eta erroldatzea Lizarragabengoako Kontzejuaren hilerrian gutxienez 60 urtez erroldatuta egon diren pertsonak. Hauek Lizarragabengoako "naturalizat" joko dira, eta erroldatutakoen tratamendu bera jasoko dute eta, azkenik, aurrez aipatutako kasuetan egon gabe Lizarragabengoako hilerrian lurperatu nahi diren pertsona guztiak.

Kontzejuak zehaztu duenez, lurreko hilobien eta horma hobien hileta erabilera 10 urtera bukatuko da, ehorzketa gertatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Udalak basolanak egin ditu Balankalekun eta Basoitxin

Aurrenekoan bide nagusia konpondu da eta atzenekoan zuhaitzak landatu dira

ALTSASU

Ikasturte honetako basolanen kanpainaren barruan, Altsasuko Udalak azken astetan bi lan egin ditu udalerriko basoen bi dermioetan. Alde batetik, Balankalekuko bide nagusia konpondu

du. Lan horiek Excavaciones Abaurrea enpresak egin ditu 19.450 euroren truke (BEZ kanpo). Beste aldetik, Altsasuko Udalak zuhaitz landaketak egin ditu Balankalekun eta Basoitxin. Aurrenekoan laritzak eta gaztai-

nondoak landatu ditu udalak. Atzenekoan, berriz, bertako haritzak, gaztainondoak, ezkiak eta serbalak. Landaketa horiek egiteko ardura Berdabio enpresarena izan da, eta horren truke 31.755,07 euro (BEZ kanpo) jaso ditu. Javier Ollo Martinez alkatetik jakinarazi duenez, "hurrengo hilabeteetan Basoitxin interpretazio panelak jarriko dira". Horiek Bizibiziki SMU enpresak jarriko ditu eta udalak 11.830 euro (BEZ kanpo) ordainduko dizkio.

MENDI JARDUERAK

Martxoak
Irurtzun



La voz de Iñaki

17 Ostirala / 19:30 - Kultur Etxea

"La Voz de Iñaki"

Proiektzioa- Solasaldia
Fundación Iñaki Ochoa de Olza, S.O.S. Himalaya
Bildutako dirua, S.O.S. Himalaya Fundazioari emango zaio

18 Larunbata / 10:00 - Iratxo Elkarte

MARTXA NORDIKOAREN hastapen-ikastaroa

Ematen du Gema Urdanitz
Tokia: IRATXO Elkarte





19 Igandea / 19:00 - Kultur Etxea

Hiru hilabete 8000koen erresuman barrena

Proiektzioa- Solasaldia
Haizea Ramirez de Alda eta Unai Razkin

23 Osteguna / 19:00 - Kultur Etxea

"Importancia de una Correcta Alimentación para RENDIR en la Vida y en el Deporte"

Hitzaldia Solasaldia (Castellano)
Javier Angulo Fernández y Rodrigo Angulo Salz





24 Ostirala / 19:30 - Kultur Etxea

MANASLU Arimaren mendia ALEX TXIKON

Proiektzioa- Solasaldia (Euskera / Castellano)

Antolatzaileak: Iratxo Elkarte eta Irurtzongo udala



Errigorako produktuak eskuratzeko garaia dela gaztigatu dute. UTZITAKOIA

Errigora berme zigilua mustutzeko aukera

Errigorak udaberriko kanpaina, 'Nafar hegoaldeko uzta, eskutik eskura' martxan jarriko du. Nafarroako Erribera eta erdialdeko produktuak eskuratzeko aukera emanen du ekimenak. Lau balioko berme zigilua osatu dute

SAKANA

Hemen da berriz Errigoraren *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpaina. Martxoaren 29ra arte, Nafarroa hegoalde eta erdialdeko oliba olio birjina estra, kontserbak, arrosa, pasta, leka-leak eta fruitu lehorrak eskatzeko aukera izanen da. Oliba 2 eta 5 litroko ontzietan eskuratu daiteke eta gainotzeko produktuak dozena bateko sortetan. "Guztiak dira kalitate bikainekoak", ziurtatu dute Errigoratik. Produktu guztiak euskaraz etiketatuta daude. Gainera, ekoizlearen jatorrizko prezioan erosteko aukera eskaintzen du Errigorak.

Hura osatzen dutenek diotenez, "aukera paregabea duzu etxeko

despentsa betetzeko". Gaineratu dutenez, "kanpaina honetan parte hartuz, batetik, bertako elikagaien alde egingo duzu. Bestetik, euskara indartuko duzu. Aldi berean, auzolana bultzatuko duzu eta, azkenik, ekoizpenean bidezko harremanak sustatuko dituzue". Aurtengo udaberriko kanpainarako *Bat egin Errigora Baliokin* leloa aukeratu dute.

Errigora baliokak

Udaberriko kanpaina aurkeztearekin batera ekimenaren sustatzaileek Errigora Baliokak berme zigilua ere aurkeztu dute. Azaldu dutenez, eskuratu daitezkeen produktu guztien etiketatik ikusgai izanen da Errigora Baliokak

berme zigilu hori. Ekimenaren sustatzaileek azaldu dutenez, "berme zigilu horrek eskuratutako produktuak gutxienez lau baliu dituela ziurtatzen du: Euskara, Auzolana, Bertakotasuna eta Nekazariekiko harreman bidezkoa. Deia egiten dugu beraz bestela kontsumitzeko, Errigora Baliokin arabera kontsumitzeko: bertako elikagaien alde, euskaraz, auzolanean eta ekoizpenean harreman bidezkoak sustatuz". Gaineratu dutenez, "bultzada bat da ekoizleek elkarlanean hasitako Errigora Baliokak identifikatzailearendako, abiapuntuko lau balioketara edota berrietan sakontzeko". Jakinarazi dutenez, www.errigora.eus/identifikatzailea

webgunean berme zigiluari buruzko informazio osatua dago eskuragarri.

Sarea

Urtero bezala ehundaka boluntarioen lanari esker eta Aek, Sortzen eta Ikastolen Elkartearekin batera ehunka herritan egin ahalko da olio, kontserba, lekale arroz eta pasta eskaera. "Produktu horiek eguneroko kontsumora ekartzeko eredu honi jarraikiz urte osorako despentsak betetzeko unea da", gaztigatu dute Errigorakoek. Eskararak www.errigora.eus web orriaren bidez egin daitezke. Bestela, ohiko tokietan dagoen esku orria betez egin daiteke.

Ordainketa txartel bidez eginez gero, 100 eurotik gorako ordainketak bi zatitan egiteko aukera izango duzu (erdia martxoan eta bigarren zatia apirilean). Hala egiten ez baduzu, dena batera ordainduko duzu, eskudirutan, produktuak jasotzean. Eskatutakoa apirilean jasotzeko aukera izanen da, besteak beste, honako egoitzetan: Irurtzungo Iratxo elkartean, Uharteko Arakilgo udaltxean, Etxarri Aranazko udaltxeko estalopean edota AEK-k Altsasuko Gartzia Ximenez kalean duen Itsasi euskaltegian.

Errigoraren *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* udaberriko kanpaina guztia auzolanean antolatzen dela gogorarazi dute antolatzaileek. Hain zuzen, herriz herri informazioa zabaltzen, eskaerak bideratzen eta produktuak biltegitatu eta banatzen ari diren lan boluntarioari esker, norbere herrian jaso daitezke produktuak ekoizlearen jatorrizko prezioan. Hau da, olio-errotan edo kontserba-etxera joanda ordainduko zenukeen prezio berean.



Burundarrak pediatra eske.

Osasunbideak esandakoa beteko den zain

Heldu den astean mediku bat pediatra lanak egiten hasiko omen da. Astearen hiru egunetan ariko da

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Altsasuko osasun eskualdeko hainbat gurasok deituta, gaur ere Altsasuko udaltxe parean kontzentrazioa eginen da hutsik dauden pediatra eta erdi plazak betetzea eskatzeko. Elkarretaratzearen deitzaileek jakinarazi dutenez, "esan digutenez, martxoaren 13an mediku bat etorriko da umeak artatzera. Astearen hiru egunetan arituko da lanean: asteartean, asteazkenetan eta ostegunetan". Deitzaileek gogorarazi zuten Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia osatzen duten osasun eskualdeari pediatra eta erdi dagozkiola eta konponbide eskasa zela nabarmendu zuten. Horrekin batera, elkarretaratzearen deitzaileek pediatra faltak eragiten dien denbora eta diru galera salatu zituzten. Horregatik, gurasoen batzarretik "utzikeria egoera hau bistartzeko" erreklamazioak aurkezteko eskatu zuten. "Horren garrantzia azpimarratu nahi dugu". Gogoratu zuten osasun etxean nortasun agiriarekin batera aurkez daitezkeela, edo online, osasun karpeten bidez. Bestetik, Osasunbideako sindikatuek grebara deitu dituzte langileak hilaren 23rako. Asteazkenean, osasun etxearen parean kontzentrazioak eginen dira, 11:00etan.

Laneko segurtasun eske bilkurak Sunsundeguin

Lan istripu bat salatzeko, atzo bezala, gaur ere elkarretaratzea egin dute 10:00etatik 10:15era

ALTSASU

Autobusak egiten dituen Sunsundegui enpresako langileen ordezkariek deituta, Altsasuko lantegiko langileek protesta bilkura egin zuten atzo. Eta gaur gauza bera eginen dute enpresa-

ren bulegoen parean jarriz. Langileek egindako elkarretaratze horien bidez asteartean lantegian lan istripua izan zuen langileari babesa eta elkartasuna adierazi diote. Eta hori bera adierazi nahi diete min hartutako lankidearen

familiari eta ingurukoei ere. Horrekin batera, enpresa batzordeak Sunsundegui zuzendaritzari exijitu dio "beharrezko inbertsioak eta hobekuntzak egitea plantillaren segurtasuna bermatzeko, eta gertatutakoaren moduko istripuak atzera ere gerta ez daitezen". Ezarri beharreko neurria "berehala" indarrean jartzeko exijitu du Sunsundegui enpresa batzordeak.

Lan ezbeharra astearteko 09:30 aldera izan zen. Lantegiaren pintura kabinan lanean ari zen

63 urteko margolari batek izan zuen ezbeharra. Antza, autobus gainean zegoela ibilgailu barrura bizkarrez erori eta min hartu zuen. Altsasuko osasun etxeko mediku eta erizaina eta suhiltzaileak ezbeharren tokira joan ziren. Aurrean zauritutakoaren egoera aztertu ondoren Nafarroako Ospitale Gunera eramatea erabaki zuten eta haraino helikopteroz eramaten zuten. Foruzaingoko agenteak ere agertu ziren, ezbeharra ikertzerako.



Irurtzongo musika eskola hartzen duen eraikina. Beheko solairuan Larrazpi gazte elkarte dago. ARTXIBOA

Musika eskola eta auditorio egitasmoak itxaron egin beharko du

Udalak eraikin berria liburutegi ondoan eraikitzeko dirulaguntzarik ez du lortu, oraingo. Aurtengo aurrekontuetan musika eskolaren birgaitze integrala jasota dago. Eta, laguntza jasoz gero, igerilekuak legedira egokitzeko lanak hastea ere

IRURTZUN

Irurtzongo Udalak aurtengo aurrekontuak asteartean onartu zituen EH Bilduren aldeko botoekin eta UPNren abstentzioarekin. Udalak 3.105.863 euroko aurrekontua izanen du, joan den urtean baino 195.863 gehiago. %6,73ko hazkunde hori egingen diren bi inbertsioren ondorio direla azaldu du Aitor Larraza Carrera alkateak. Alde batetik, musika eskolaren birgaitze integrala egingen du udalak. Eraikinean honako lanak egingen dira: igogailua jarri, fatxadetako inguratzaila hobetuko da energia eraginkortasuna hobetzeko, amiantoeko teilatua kendu eta teilak jarriko dira, argindarra sortu eta eraikinean bertan kontsumitzeko eguzki plakak jarriko dira eta eraikin guztiko elektrizitate azpiegitura berrituko da. Gai-

nera, behe solairuan dagoen Larrazpi gazte lokaleko leihoak ordezkatzeko dira. Larrazak azaldu duenez, "Europako funtsen bidez MITMAk 252.105 euroko dirulaguntza jaso dugu eta, horrela, 346.500 euroko inbertsioa eskatzen duten lanei aurre egiteko aukera izanen dugu".

Gainontzeko toki erakundeen modura, Irurtzongo Udala Nafarroako Gobernua Toki Azpiegituren Plan berriaren ebazpena iritsi zain dago. "Dirulaguntza jasoko bagenu igerilekuak egungo legedira egokitzeko lanen lehen faseari ekinen genioke.

IRURTZUNGO UDALAK AURTEN 20 BAT PERTSONA KONTRATATZEA AURREIKUSI DU

Uste dugu premiazko inbertsioa dela", azaldu du alkateak, eta gaineratu du: "oso azpiegitura handia da. Sakanako igerileku olinpiko bakarra da". Jakinarazi duenez, 667.076,73 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua du proiektuak eta 160.000 euroko dirulaguntza jasotzea espero dute. "Lanen beste zati bat diruzaintzako gerakinarekin finantzatzeko litzateke. Baina gobernuak plana ebatzi ondoren, proiektuaren ekonomia bideragarritasuna behin betiko baloratuko dugu", argitu du alkateak.

Udalaren asmoen artean dago musika eskola herri erdigunera eramatea eta 200 pertsonarendako auditorioa egitea. Liburutegiaren ondoan jaso nahi luke. Larrazak azaldu duenez, "governuko hainbat departamenturekin bilerak egin ditugu dotazio eraikin berri bat eraikitzea ahalbi-

detuko zigun finantzaketa lortzen saiatzeko, baina ez dugu lortu".

Energia eraginkortasuna

Musika eskolan jarriko den autokontsumorako instalakuntza udalak duen hirugarrena da. Kiroldegikoarekin kiroldegia bera, frontoia eta eskola hornitzen dira eta liburutegikoarekin liburutegia eta udaletxea. Udaletxeak, gainera, biomasa gal-dara du. "Atakondoa eskolan halako bat jarri nahi genuke eta horretarako proiektua lantzen ari gara", jakinarazi du alkateak. "Horren ondoren herritarrekin energia komunitate publiko bat lantzeko ideia dugu. Kiroldegiko teilatua erabiliko genuke argindarra sortzeko", aurreratu du Larrazak.

Horri lotuta, aurrekontuetan 15.000 euroko diru poltsa dago Nasuvinsarekin hitzarmena egiteko. "Urbasa, Artadia eta Ardantzeta kaleak interes globaleko bi proiektuetan sartuta daude. Hitzarmen horren bidez, etxebizitza blokeak zaharberritu edo birgaitu nahi dutenek teknikoen aholkularitza jaso eta dirulaguntzen kudeaketan laguntza izanen dute", azaldu du alkateak.

Bestetik, hirigintzarekin lotuta, Larrazak jakinarazi du Lizarra kalearen eta saihebidaren artean dagoen lursailaren urbanizaziorako lanak emateko deialdia aurki egingen dela. 507.282,91 euroko inbertsioa da (BEZ kanpo). "Lehen faseak partikularren eta udalaren lurra hartzen ditu eta hor 30 partzela sortuko dira. Bigarren fasea, lur pribatuetan dago eta han bederatzi partzela sortzea aurreikusten da. Baina, azken hori lur jabeak egoki jotzen duenean garatuko da", zehaztu du Larrazak. Bestalde, joan den urtean hasitako lanei segida eman eta Atakondoa eskolako pasabideak hobetzen segituko dute aurtengoa. Udalak 25.000 euro bideratu ditu lan horiek egin ahal izateko.

Diagnosia eta plana

Irurtzongo kulturartekotasunaren diagnosia egin zuen joan

MUGIKORTASUN PLANARI BURUZKO PARTE HARTZE PROZESUA UDAZKENERAKO

den urtean udalak. Alkateak azaldu duenez "udalarendako oso garrantzitsua da diagnosi hori eta hurrengo urteetan jarraipena egingen diogu". Han jasotakoei erantzuna emateko aurtengoa Atakondoa eskolan eta herritarrekin hainbat ekintza egingen dira. Horiek gauzatzeko 5.500 euro bideratuko dira. Bestetik, aurki saihebidetako zabalduko da eta horrek herri erditik pasatzen den trafiko kopuru handia kenduko du. Horren jakitun, udalak mugikortasun plana sustatu du. "Dagoeneko martxan dago. Irurtzundarrekin aurreneko kontaktua izan dugu. Jaso ditugu zenbait gauza. Asmoa da hauteskunde ondoan, udazkenean, parte hartze prozesua egitea", argitu du alkateak.

Udalak aurtengoa ere irurtzundarren esku 35.000 euro jarriko ditu zein erabilera eman nahi dieten zehazteko. Kopuru hori izanen dute parte hartze aurrekontuek. Kultura Kontseiluak 121.000 euroko aurrekontua izanen du eta musika eskolaren aurrekontua, berriz, 168.527,68 eurokoa da. Bestalde, kirol eta kultura taldeekin lankidetzan aritzeko apustua egin du udalak, eta, dagoeneko, sei lankidetzak hitzarmen sinatu dituzte, 9.600 euroko poltsa dutena. Bestetik, gazteria, kontziliazio, ingurumen, eraldaketa digital, euskara eta berdintasun gaietarako 25.800 euro ditu.

Irurtzongo Udalak aurtengoa 20 bat pertsona kontratatuko ditu aurtengoa: 8 igerilekuan aritzeko, zerbitzu anitzetarako 4, Iturras-karrirako 4 edo 5 eta Babestutako Gizarte Enplegurako 3 edo 4. Gizarte arloko babeserako partidako poltsak, guztira 119.739 euro ditu bere baitan. Mank-erako, berriz, 154.111 euro dira.

HARA ZER DIEN

Sakanako esaera zaharrak (I)

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Esaera zaharrek herriaren jakinduria jaso izan dute idazteko joera edo ohitura ez zenetik. Ahoz aho joan dira belaunaldi ezberdinen hiztegiaren metatzen eta hauek bizitakoaren eskarmentuan dute bere jatorria. Nolabait azaltzeko haien izaera, ahozko herri filosofia osatzen dutela esan genezake.

Hasierako txanda honetan, beste batzuk ere etorriko baitira, urtea mustu egiten dugun honetan, egutegiarekin eta eguraldiarekin lotuta agertzen zaizkigun esaera zaharrak izanen ditut hizpide.

Apibil biribil, urdiek zotolan gosiek il! (Aranatz), **Apibil biribil, urdiek urdetaien gosiek hil!** (Burunda) Apirila 'biribil' denean (gogorra, negu klimatologikoa pasatu gabe oraindik), jatekorik gabe zotolan edo urdetegian (basoko txerriendako txabola), goseak hilik suerta daitezkeela gaztigitzen digu.

Apiribil azkenien, ostua Aizgainien! (Bakaiku) Noizko ateratzen duten hostoa pagoek Bakaikuko Aizgainen (Barga gaineko toponimoa) adierazten digu.

Apibila fan da maietza gero, ganbaa baztarrean agotza bero! (Burunda) Behin apirila eta maietza ere pasatuta, etxeko ganbaran negurako pilatutako ahotz hondarrak bertan gera daitezke. Amaierako hitza egon aditzaren aginterako forma trinkoa, bego (egon bedi), izan daiteke, aurreko zatiko amaierarekin errima erabatekoa egiteko.

Aran urte, elur urte! (Aranatz), **Ezkur urte, elur urte!** (Aranatz), **Elur urte, gari urte!** (Burunda), **Ezkur urte, xagu urte** (Lizarraga) Arantzak arana eta haritzak ezkurra erruz ematen dutenean, elurra izanen dela neguan adierazten du. Burundakoak, aldiz, elurra mesedegarri izaten dela gariarendako. Lizarragakoak ezkurra ugari izatearen alboko kaltea ere jasotzen du.

Elorriye lorien, artzeye mendi geñen! (Aranatz) Elorria loratzen denean da momentu egokia ardiak mendira eramateko, ez lehenago behintzat.

Erramu beruek itto ta Lazaro otzak il! (Etxarri Aranatz), **Lazaro otzak il, Erramu urak yan!** (Burunda)

Lehenak, negua eta udaberriaren arteko eguraldiaren ezegonkortasuna adierazten du, astebeteko epean (Erramu igandetik, Pizkundekora) muturreko bi egoerak suerta daitezkeela gaztigitaz. Bigarrenak, muturreko bi egoerak kaltegarriak izan daitezkeela, batean hotzak garbitzen eta bestean urak (euriak) eramateko (yan) moduan.

Goiz gorri, atsaldien/ arrats auri! (Aranatz, Sakana), **Goiz gorri, arratseako yauri!** (Burunda), **Arras gorri, biyer egueldi!** (Aranatz, Sakana) Eguraldi iragarpina. Argisentian, zerua gorriturik agertzen denean eguzki aldetik, arratsaldean seguruenik euria egingen duela lehenak; eta bigarrenak, aldiz, iluntzean zerua gorriturik dagoenean eguzkia sartzen den aldetik, hurrengo egunean eguraldi ona izanen dela. Hitzez hitz hartuz gero horietako azkena, beti asmatzen duela esan beharko genuke, baina ez da ahaztu behar izenak, izenondorik gabe erabiltzen direla beste hainbat testuingurutan: Gaur bai eguraldia! Pilotaria da hori, gero!

Ilbeltza ta iltxui, ez ardi ez axui! (Aranatz), **Ilbeltza, bada il txuri, ardiyek aziko dau axuri. Ilbeltza ez bada ilzuri, ez ardi ta ez axuri!** (Bakaiku) Ilbeltza esan izan zaio Sakanan eta Nafarroako beste euskal hizkera askotan urtarrilari. Bakaikuko esaeraren azalpena eman zuen Frantzisko Ondarrak: "Zengaiti elurrakin etxien mantentzen dia ta indarra hartzen dai etxeko janakin". Aranazkoak, aurrerago jotzen du esanez berez gogorra den hilabetea txuriz jazen bada, ez dela epe horretan gauza onik (ez ardirik, ez axuririk) izanen.

Kandelaria otz, negube motz!, Kandelaria bero, negube gero! (Aranatz, Burunda) Otsailaren 2an izaten da Kandelaria edo Kandelera eguna eta beste behin, eguraldia iragarri egiten da epe luze samarrerako. Otsailaren hasierako eguraldiak, orduan,

baldintzatzen du udaberria nolakoa izanen den.

Kuku, Sanjuanetan/ Sanpedrotan mutu! (Aranatz) Garagartzaroaren (ekaina) amaiera aldera (hilak 24-29 tartean) uzten dio kukuak kantatzeari eta badirudi, gainera, garagartzaro osoan ez zaiola indar gehiegirekin entzuten.

Marsuben iru aro: goizien loi laparra, eguerdiyen giro ona, ta gaubien sekogi! (Etxarri Aranatz, Unanu) Aro izenak ereiteko giroa, gaztelaniako "tempero", esan nahi du eta esaera honen arabera, martxoan, negua eta udaberria artean, egunean zehar eguerdikoa dela girorik egokiena horrelako lanetarako adierazten du. Lohi laparra, itsaskorra, aitzurrean itsatsirik gelditzen dena.

Marsuben leiñua nuaño, apibillen elurra autzeño! (Lizarraga), **Marsuko lainua nuaindo, elurra haraindo** (Burunda) Martxoko lainoa noraino igotzen den mendian, haraino jaitsiko da elurra eremu berberan hurrengo hilabetean. Alderantziz proportzionala beraz lainoa elurrarekiko bi hilabeteetan..

Marsuko ostotsak, berrogei egun negu! (Etxarri Aranatz) Martxoan ostotsak edo trumoiak, ekaitzak, ugari badira, neguak iraun egingen duela maiatzeraino adierazten du.

Meyetziyen elorriye loria, artue lurria! (Etxarri Aranatz) Nekazariarendako aholkua ematen du esaera honek, adieraziz elorria loratzen hasten denean maiatzean, orduan dela momentua artoa ereiteko, lurrean sartzeko.

Santa Kruz meyetzeko, gui souek leyetzeko! (Arbizu, Lizarraga), **San Migel maietzeko, gue sorua laiatzeko** (Burunda) Santa Kruz eguna 3an eta San Migel 8an izaten dira maiatzean eta esaerak adierazten du Arbizun eta Lizarragan lehenak eta Burundan bigarrenak, berandu izanagatik oraindik soroko lanak egin gabe daudela, aurreko eguraldi txarraren hasierako eguraldiak, orduan,

Txikiye banitzen, aundiye banitzen, meyetziyen buutu nitzen! (Etxarri Aranatz), **Txiki nitzan, aundi nitzan, maiatzian buru nitzan!** (Bakaiku), **Txikia banintzan, aundia banintzan, maiatzien zorrueen nitzan!** (Urdiain) Asmakizun moduan erabiltzen zen esaera honen arabera, maiatzean dagoeneko galburua (gari burua) eginik izaten da gari sorotetan.

Otsailko, otsailko, igati ibilko ttuk nee ardiyek salto ta brinko! (Etxarri Aranatz) Etxarriko artzain batek esan omen zuen esaera hauxe otsailaren 28an ardiekin mendira zihoala, baina ez zuen nonbait kontuan izan bisurtea zela ordukoa eta hurrengo egunean, 29an, elurraldi izugarri baten ondorioz, ardi gehienak hil zizkion mendekua harturik otsailak bezperako adarjotzeagatik.

Otsail txiki hasarria, eraiz beste guztiek baidore obia! (Burunda) Otsaila da hilabeterik labur edo txikiena, baina beste guztien modukoa bestela.

San Juan eguna, argittu orduko/argitziako illuna! (Aranatz) Esaera ironikoa dugu hauxe eta gustura egotean zein azkar pasatzen den denbora adierazten du. Etxarrin kontaktzen zen bi emakume arbizuar lixutokira joan zirela goizean arropa garbitzera eta hantxe lanean eta hizketan aritu ondoren, lixutokiaren atarian buru gainean (burkiño) arroparen saskia zeramatela hitz eta putz jarraitu zuten, halako batean konturatu iluntzen hasia zela eta haietako batek hauxe esan zuen arte, urteko egunik luzeenean.

San Klemente papa, elurre tipi-tapa! (Aranatz) Azaroak 23, San Klemente, Lizarragan festak. Esaerak adierazten digu ohikoa izan dela garai horretan elurra ikustea gure inguruan eta aurten ere hala izan da.

Santa Luzia egunezkioz oiluen atxaparra luzetzen da eguna. (Bakaiku, Lizarraga) Abenduaren 13an hasten omen da eguna luzatzen, oso gutxika (oiloren atzaparra adina) bada ere.

DUELA 25 URTE...



Santutegia zabalik

Berrikuntza lanengatik Aralarko santutegiak zortzi hilabetez itxi zituen ateak. Bitarte horretan kisugileak teilatua guztiz berritu zuten horrela elizara ura ez sartzeko eta altzariak ez izorratzeko. Horrekin batera, elizaren lurraren azpian berogailua jarri zen, tenpluaren tenperatura epeltzeko. Lanek 78 milioi pezetako (468.789,4 euro) aurrekontua izan zuten. Lanak egin ondorengo aurreneko elizkizunean jende ugari izan zen.

**Martxoaren 8tik
aurrera**

**berria
fm**

PODCASTA

Ziklo berria

**Kazetaritza
feminista**
erraietan
eta uhinetan

UXUE Rey

ANE

Eslaba

**Hamabostean behin, asteazkenez,
[Berria.eus/podcast](https://berria.eus/podcast) webgunean eta plataformetan entzungai.**



Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleek parte hartu zuten Emakumeen Eguneko elkarretaratzean.

Hezkidetzaren Lanbide Heziketa institutuan

Martxoaren 8a zela eta Hezkidetzarekin lotutako jarduerak egin zituzten asteazkenean. Institutuan jabetuta daude ikasketak sexuaren arabera aukeratzeko direla: industriara gizonezkoak, zaintzara emakumezkoak

SAKANA Institutuko ikasleak *Zuregatik, guztiengatik*. Beste zaintza sistema baten alde leloak irakur zitezkeen pankartaren atzean, ikastetxe parean. Haien eskuetan genero berdintasunaren aldeko hainbat lelo idatziak zituzten kartulinak. Horrela bukatu zen Emakume Langileen Nazioarteko Eguneko ekitaldia Sakana Lanbide Heziketa institutuan. Ordu bat lehenago ikasgeletan ikasleek bideo pare bat ikusi zituzten. Haien inguruko balorazioak, iritziak edo hausnarketak talde txikietan egin zituzten. Eta, ondoren, ikasleek sortutako ideiak idatziz eman zituzten. Beste gela bat pankartaz arduratu zen. Lanketa guztia ikasleen ordezkariak ostiralean egindako bileran zehaztu zen. Gogoratze-taldea argazkia atera zuten. "Haien eskaera izan zen ekimenak institututik harago zabaltzea eta prentsa deitzea", azaldu du Mari Jose Oiarbide Izagirre ikasketak buruak.

Ikastetxe barruan indarkeria matxistagatik hildako emakumezkoen berri ematen duen kontagailua jarrita dute. 14 zenbakia zuten jarrita asteazkenean. Haren ondoan eta beste pasabide batzuetan jarri zituzten ikasleek idatzitako hausnarketak eta leloak. Besteak beste honakoak irakur zitezkeen: ez dut zure piroporik nahi, zure errespetua baizik; patriarkatuak patriarkadak eragiten dizkit; atzera pausorik ez; beldurrik ez duten emakumezkoek gizonezkoek dieten beldurra da matxismoa; berdintasunari bai, patriarkatuari ez; feminismoa ez da gerra oihua, baizik eta berdintasunaren aldeko borroka; zuregatik, guztiengatik; M8 ahots morea, neurea eta zeurea edo ez lurra ez emakumezkoak ere ez gara konkistarako lurraldeak.

Generoa baztertu, pertsona gisa aukeratu ikasketak

Oiarbidek aitortu duenez, institutuan "oso emakumezko gutxi

gaude. Lanbide Heziketako kasua oso berezia da, zeren neska-mutilek, normalean, ez dute nahasurik ikasten, ikasketak ziklo maskulinizatuak eta feminizatuak daude". Lehenak industriari lotutakoak dira, bigarrenak zaintzari lotutakoak. "Gizarteak 'agintzen' duena da. Beraz, estereotipo pila bat hautsi behar gaude", gaineratu du. Horregatik ezinbestekoa da emakumezkoen artean industria lanbideak sustatzea eta gizonezkoen artean zaintza lanena.

Oiarbidek gaztigatu duenez, "erabakia hartuta etortzen dira Lanbide Heziketara. Beraz, aurrerik egin behar da lanketa. Ezin da lanbidea generoagatik aukeratu. Pertsona gisa aukera-

"EZIN DA LANBIDEA GENEROAGATIK AUKERATU. PERTSONA GISA AUKERATU BEHARRA DAGO"

tu beharra dago". Are gehiago: "gure lanbidea aukeratzeko du-gunean, hautaketa horren ondorioen berri izan behar dugu". Ikasketak buruak azpimarratu duenez, "emakumezkoek industria ikasketak aukeratzeko premia handia dago. Izan ere, Sakana eskaintza handiena industriakoa da. Sakana bizi eta lan egin nahi badute, beraien prestakuntza hemen dagoen lanbideetara egokitu beharko dute". Oiarbidek azaldu duenez, "gizonezkoek aukeraketa hori egiten dute eta lan egiteko ez dute arazo handirik. Baina emakumezkoak kanpora joan behar suertatzen dira". Bestela, soldata eta lan baldintza okerragoak dituzten lanetan ariko direla azpimarratu du.

Horregatik, Oiarbideren iritziz, "ikastetxe guztietan hezkidetzaren landu beharra dago". Haiek ez dute hori Martxoaren 8a mugatzen, "institutuaren hezkuntza programan hezkidetzaren jasoa dago", azaldu du Oiarbidek. Eta gogorarazi du Sakana Lanbide Heziketa institutua hezkidetzaren lantzen ikastetxe pilotua izan zela. "Gaur egun, efemeridea lantzeaz aparte, bi edo hiru hilabete behin ekintzak antolatzen ditugu. Hori maskulinitateak landu, emakumezkoen ahalduzkoa sustatu edota hezkidetzaren lantzen ditugu. Ikastetxe honetan hezkidetzaren garrantzia handia da. Lan hori eguneroko edo maiz egiten dugu", ziurtatu du.

%13,68

Institutuko ikasleen kopuru hori da emakumezkoa (29). Gaineratzen %86,32 gizonezkoa da (183). Emakumezko gehien dituzten ikasketak mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzakoak da: 15, emakumezko ikasleen %51,72. Mendi ibiltaritza ikasten 5 emakumezko daude (%17,24); mikroinformatika sistemak eta sareak ikasten 4 emakumezko daude (%13,79); merkataritza laguntzaile eta mendi ertaineko ikasketak egiten bina emakumezko daude (%6,9) eta, azkenik, merkataritza zerbitzuetan trebatzen emakumezko bakarra dago (%3,45). Emakumezko ikaslerik ez duten ikasketak dira: merkataritza zerbitzuen oinarritzako graduan, elektromekanika mantentzea, mekanika fabrikazioekoizpenaren programazioa, industria mekatronika eta eskaladan.

Antolakuntza sozialista zabaltzearen aldeko deia

Itaia "guztion ongizatea bermatuko duen gizartearen eraikuntzan" ariko da

SAKANA

Itaiak, emakumezkoen antolakuntza sozialistak, Emakumeen Egunean adierazi zuenez, "emakumezko langileen zapalkuntzak ez du aterabiderik kapitalismoaren baitan". Horregatik, sozialismoaren eraikuntza aldarrikatu zuen, "gure askapenaren premisa gisa". Adierazi zuten, "klaserik gabeko, eta, ondorioz, zapalkuntzarik gabeko gizartearen eraikitze baldintza politikoa eraihi behar ditugu. Antolakuntza komunistaren baitan garatzen ditugun borroka prozesuaren eta sortzen ditugun instituzio propioen baitan zapaldu guztiendako espazio seguruak lortu behar ditugu; zapalduen kontrako eraso guztiei erantzunez, eta, horretarako, bitartekoak sortuz".

Itaiako kideek salatu zuten, "instituzioek berdintasunaren aldarrikapena bere egin badute ere, ez dute zapalkuntzarekin bukatzeko borondate errealik erakutsi". Gaineratu zuenez, "gubernuetatik proposatzen diren legeek emakumezko langile asko eta asko bazterrean uzten dituzte". Ziurtatu zuten, "sozialdemokraziak ere egoerari aterabide emateko ezintasun bera du. Lege onarpenek emakumezkoendako zenbait neurri positibo eragin baditu ere, inondik inora ez die emakumezko langileak askatzeko norabide estrategikoari erantzuten".

Ekonomia atzeraldiaren tesuinguruan, Itaiakoek ziurtatu zuten, "hedabideen eta instituzioen ideologiak ez dituzten emakumezkoen arazoak ikustarazten, edo medio nagusietan ateratzen badira, ez dute emakumezko langileendako irtenbiderik proposatzen". Horregatik, "enpresari eta alderdi profesionalen iruzurrari aurre egin eta emakumezko langileak askatuko gaituen gizarte sozialista eraikitzea" deitu zuten.



Kitz Mendiola Barandalla eta Miren Mendiñeta Lakuntza.

"Zaintzarekin gure bizitzak immolatu egiten ditugu"

KITZ MENDIOLA ETA MIREN MENDIÑETA MUGIMENDU FEMINISTAKO KIDEAK Mugimenduak jakinarazi du "borroka artikulatu bat planteatzen" duela "udazkenean izanen den greba feminista orokor baterantz"

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Zaintzaren gaiari zentraltasuna ematen urteak daramatza Euskal Herriko mugimendu feministak. Emakume Langileen Nazioarteko egunera ez da mugatuko *denon bizitzak erdigunera* leloa.

Zergatik erreparatu dio mugimendu feministak zaintzari?

Kitz. Emakumezkooi betidanik dagokigun gauza bat izan da zaintza. Baina pandemiatik hona zentralizatu da. Kapitalismoa krisian dago, baina krisian dagoena zaintza bera

da. Hortik hainbat hari ateratzen dira: haurren zaintza, adinduena, sektore publiko zaintzaren prekarizazioa eta abar. Horregatik, zaintza guztiak erdigunean kokatzearena eta greba deialdia.

"ATZERRITARREN LEGEA ERE HOR DAGO. HORREK ZAINZAREN PREKARIZAZIORA BIDERATZEN GAITU"

Miren. Zaintza arrazializatu da, sexualizatu da, gero eta prekarizatuagoa da. Hor daude haur eskoletako borroka, Aita Barandiaran adinduen egoitzako eta Josefina Arregi klinikako langileen baldintzak eta aldarrikapenak, pediatriaren eskaera... Azpimarratu beharra dago zaintzak ikutzen gaituela, gehienbat emakumezkoak egiten dute. Horregatik jarri da zaintza erdigunean. **Zaintza, senideren bat zaintzen ari den emakumezkoa.**

M. Emakumezkoei atxiki zaien rola hori da, zaintzarena. Beti bete izan ditu familia horretako hutsuneak eta zaintza lan horiek.

K. Gure lan baldintza prekarioak badira, ordu asko sartu behar baditugu, gure adineko ezin ardura gaitzke. Hori krisi bat da, pertsonala, baina kolektiboa aldi berean.

Bestetik, migratutakoak adineko pertsonak zaintzen.

K. Askotan emakumezkoak izateaz aparte, beste herrialde batzuetatik etorri eta egoera prekarioan dauden emakumezkoak dira. Hor egiturazko beste zapalkuntza bat jasaten dute: arrazakeria. Gainera, Atzerritarren Legea ere hor dago. Horrek zaintzaren prekarizazioa bideratzen gaitu.

Azkenik, erakundeetan adinekoak zaintzen dituzten langileak.

K. Sektorearen privatizazioa eta sektore publikoaren prekarizazioa daude. Hor emakumezkoak daude. Ez dute soldata egokirik jasotzen. Feminizatutako ekonomia batean daude. Arazo potolo bat dugu hor, denon arazoa dena.

Zaintzaren hiru irudi estereotipatu aipatu ditugu, baina pluralean ari zarete. Gehiago dira, ezta?

K. Bai. Hor ere badago txikitatik emakumezkoei askotan ezarri diguten zaintza bat, popinak ematen dizkiguten unetik zaintzeko derrigortze hori dugu. Mugimendu feministatik esaten dugu kolektibizazioa mahai gainean jarri behar dugula. Baita ez zaintzeko eskubidea ere. Zeren askotan emakumezkoak ardura hori hartzen dugu; etxeko lanez aparte, ez dakit noren zaintza. Eta horrela gure bizitzak immolatu egiten ditugu.

M. Zaintzaren erantzukizuna denok hartu behar dugu. Kolektibizatu behar da. Emakumezko eta gizonezkoen, denon, erantzukizuna da zaintza. Publiko eta komunitarioa izan behar du.

Zergatik ez luke zaintzak negozioa izan behar?

K. Zaintza eskubide bat delako. Askotan bizitza erdigunean jarri beharrean ekonomia eta kapitala jartzen delako erdian. Horrek egoera prekarioak, mina, ezine-

"GREBARA BEGIRA HAINBAT MUGIMENDU ETA ERAGILEREKIN LANEAN HASI ETA SARETUKO GARA"

gona eta hori guztia ekartzen du.

Zaintza modu kolektiboan ulertzen duzue, ez indibidualizatuan. Azaldu diezagukezue?

M. Saretze feminista eta kolektibo bat eman dadila. Bestelako esperientziak edo saretzeak ere bizi beharko genituzke, esaterako: komunitate jangelak, komunitate zaintza moduak... Horrek ez du esan nahi instituzioek ez dutela beraien erantzukizuna hartu beharrik. Denen eskura jarriko den zaintza instituzionalizatu behar da. Gaur egun, zoritxarrez, familia bat adinekoen etxera joateko dirurik gabe egon daiteke.

Borroka artikulatua greba feminista orokor baterantz. Zergatik?

K. Zaintza erdigunean, horrekin bi urte pasa daramatza. Udazkenean greba feminista orokor bat deituko dugu. Zaintzen inguruko greba bat izanen da. Denoi ikutzen digun gai bat da. Denok nahi dugu aldaketa bat.

M. Eskubide unibertuala behar luke, eta ez bakarrik ordaindu dezaketenean. Denon eskubidea da, denon bizitzaren erdigunean dago zaintza. Emakumezko asko daude zaintzaren erabat menpe daudenak eta mendekotasun horretatik askatu beharra dago. Horregatik, dena aldatzearena.

Nola artikulatuko greba?

K. Emakumeen Egunean jakinarazi ondoren, Sakanan hainbat gauza egingen ditugu dauden zaintza arloetan: Haur eskolak, adinduen egoitza, klinika, arrazializatutako emakumezkoak... Jendea mugiarazi nahi dugu udazkeneko greba hori indartsu izateko.

Hauteskunde urtean zaintza agenda politikora eraman nahi duzue?

K. Hala da. Pandemiaren garaian mugimendu feministak protokolo bat egin zuen, gauzak beste modu batera egiteko eskatuz gobernu eta politikariei. Ez zuten kontuan hartu. Sekula ez da berandu. Egitekoak asko dira. Bada garaia.

Zer ezaugarri izanen ditu prozesuak?

M. Hainbat mugimendu eta eragilerekin lanean hasi eta saretzea. Greba batzorde feminista bat eratuko dugu. Badugu esperientzia: greba feminista izan genuen, izugarriko arrakasta izan zuena. Bide beretik segituko dugu: batzordeak sortu, jendea batzordeetan parte hartzera animatuz... Zaintzen inguruan saretuko gara.



SAKANAKO ERRALDOIAK

KOLORERTA ITZARU

28 orrialdetako liburuxka, ilustrazio eta azalpenekin

ESKUALDEKO
LIBURU-DENDA HAUETAN **SALGAI:**

IRURTZUN: ELUSTONDO ETA MARTXUETA

ETXARRI ARANATZ: KAXETA

ALTSASU: ARKATZ ETA LIBURUNDA

gik DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

FUTBOL PREFERENTEA

22. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Etxarri Aranatz - Altsasu	1-1
Lezkairu - Lagun Artea	1-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Amigo	49
10 Altsasu	29
17 Etxarri Aranatz	14
18 Lagun Artea	10

HURRENGO JARDUNALDIA

MARSUAK 11, LARUNBATA

16:00 Itaroa Huarte B - Etxarri (Areta)

MARSUAK 12, IGANDEA

15:45 Altsasu - Lezkairu (Dantzaleku)

16:30 Lagun A. - Soto Ibarbaso (Zelai Berr)

Altsasuk arerio zuzena hartuko du

Etxarri jokatuak derbian bana berdindu eta gero, Lezkairu arerio zuzenaren kontra Dantzalekuan jokoan dauden hiru puntuei eutsi nahi die Altsasuk.

Etxarrik puntuatzen segi nahi du

Azken bi partidetan puntuatu du Etxarrik, eta bide beretik segi nahi du. Larunbatean Itaroa Huarte du arerio Iruñerrian.

Lagun Artea Soto Ibarbasoren kontra

Lagun Arteak sailkapenean zazpigarren den Soto-Ibarbaso taldea hartuko du igandean Zelai Berrin. Partida zaila du aurretik.

EMAKUME PREFERENTEA

17. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Mutilvera B	1-2
-----------------------	-----

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA

1 Mutilvera B	42
7 Altsasu	16

HURRENGO JARDUNALDIA

MARSUAK 11, LARUNBATA

18:30 V. de Egües - Altsasu (Sarriquiren)

Altsasuk lehen fasea despidituko du

Valle de Egües izango du aurkari Altsasuk lehen faseko azken jardunaldian.

FUTBOL ERREGIONALA

20. JARDUNALDIKO EMAITZA

Beti Onak - Altsasu B	3-0
-----------------------	-----

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Beti Onak B	51
11 Altsasu B	19

HURRENGO JARDUNALDIA

MARSUAK 12, IGANDEA

13:00 Altsasu B - Berriozar (Dantzaleku)

Altsasuk Berriozar hartuko du

Liderraren kontra galdu eta gero, Altsasuk Berriozar arerio zuzena du aurkari.

Jotzaile handien lehia Binakako finalerdietan

PILOTA Binakako finalerdietako ligaxkako lehen jardunaldia jokatu da asteburuan. Zabaletak eta Elordik Peña eta Mariezkurrena izango dituzte aurkari Labriten, jotzaile erraldoien arteko partida izango da

Maidar Betelu Ganboa ETXARREN

Binakako hasierako ligaxka atzean utzita, azkeneko faseari ekin diote finalerdietara sailkatu diren lau bikoteek. Euren arteko ligaxka jokatu da hemendik aurrera, Nafarroa Arenako finalera helduko diren bi bikoak erabakiko duena.

Hasierako ligaxkako liderrek, Aitor Elordik eta Jose Javier Zabaletak, Jon Ander Peña eta Jon Mariezkurrena izango dituzte aurkari larunbatean Labriten. Begi gehienak atzeko koadroetan daude, bi atzelarien arteko borroka handia espero baita.

"Joseren eskuinkada inoiz ikusi dudana gogorrena eta indartsuena da. Uste dut pilotari gehienek hori uste dugula. Oso zaila da haiei kontra egitea, baina saiatuko gara" azaldu zuen material aukeraketan Mariezkurrenak.

Etxarrengo atzelariak ere errespetu handia dio Berriozarkoari.



Jose Javier Zabaleta. ARTXIBOA

"Jonek asko jotzen du atzetik. Pilota abiadura bizian iristen da, oso atzetik. Ongi egiten badute, gora egingo dute". Beste finalerdian Lasok eta Imazek Altuna eta Tolosa izango dituzte aurkari, Ogetan.

Irurtzun vs Urbion, etzi

Espainiako Kluben Arteko Pilota Txapelketan Irurtzunen asko du jokoan: final handirako sailkatzea, hain zuzen ere. Igandean, marsuak 12, Irurtzun Urbion taldearen kontra lehiatuko da, eta txapelkun final handirako txartela lortuko du. Partidak Irurtzunen jokatu dira, 17:00etan, eta zaleak alde izango ditu Migel Berazak kudeatzen duen klubak. Retegi Bik (Irurtzun) Senar (Urbion) izango du aurkari buruz buru, eta De la Fuentek eta Bergerak (Irurtzun) Cabrerizoren eta Olidenen kontra (Urbion) jokatu dute.



Joan zen urteko Udaberri Saria. ARTXIBOA

TXIRRINDULARITZA 190 txirrindulari Altsasuko Udaberri Sarian

2023 denboraldiko Sakanako lehen txirrindularitza proba hartuko du Altsasuk igandean: junior mailako XXXVII. Udaberri Saria. Burunda Txirrindularitza Taldeak azaldu dutenez, 190 txirrindulari daude izena emanda, parte hartze ederra. 10:30ean abiatuko dira txirrindulariak Foru plazatik eta 80 km dituzte aurretik. Altamirako portua hirutan gainditu beharko dute.



Sokatira saioa, Paz de Zigandan. ANDRA MARI

HERRI KIROLAK Olazti, Nafarroako Herri Kirol Jokoen topaleku

Aurreko igandean hasi ziren Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako XXXVI. Nafarroako Herri Kirol Jokoen topaleku, Paz de Ziganda ikastolan. Proba konbinatuetan 41 talde lehiatu ziren eta sokatiran 11, tartean sakandarrak, Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletatik sortutakoak. Bigarren jardunaldia igandean jokatu da, 10:30etik aurrera, Olaztin.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Nafarroako selekzioa, prest

PALETA GOMA / PILOTA Nafarroako Esku Pilota Federazioak Nafarroa ordezkatuko duten 150 pilotari eta erremintako espezialisten selekzioa aurkeztu du Elgorriagako bainuetxean. Marsuaren hirugarren asteburuan Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia, Nafarroa

eta Iparraldeko selekzioak jokatu dute GRABNI txapelketa hasiko da, eta paleta goman Irati Igoa eta Naroa Otxoa etxarriarrak lehiatuko dira. Irati Igoa eta Murillok Espinalen eta Gorostiagaren kontra jokatu dute gaur, ostirala, 18:00etan, Labriten.



Shotokan karate klubeko ikasleak entrenatzen, aurrean Ruben Trinidad, Luis Martil eta Leire Meaza dituztela.

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Sakanako karatea aipatu bezain pronto, Luis Martil datorkigu burura. Ezinbestez. Luis Martilek sortu zuen 1.978an Shotokan karate kluba Irurtzunen, Gaspar Fernandezekin batera. Urte batzuetara Lakuntzan ere klaseak ematen hasi zen Martil. Ibilbide honetan guztian karateka asko trebatu dira Shotokanen, txapel-dun handiak tartean, Mikel Aizpun, Roberto Martil, Ruben Trinidad, Sandra Vilches, Edurne Alonso, Iñigo Arrasate, Martin Ezkurdia esaterako. Urteak, ordea, ez dira alferrik pasatzen eta 2022/2023 ikasturterako Luis Martilek eskolaren ardura uztea erabaki zuen. Berarekin trebatu ziren Leire Meaza Pizarro lakuntzarra eta Ruben Trinidad irurtzundarra dira orain Shotokan karate klubeko gidariak.

Leire Meaza Shotokanen hasi zen. "Luis karate klaseak ematen hasi zen Lakuntzan, eta 5 urte nituela berarekin hasi nintzen. Aurrerago karatea utzi nuen, beste gauza batzuk probatzeko, eta 14 urte nituela karatera itzuli nintzen. Geroztik karatean jarraitu dut". Duela bospasei urte hasi zen Lakuntzako taldea

Shotokan, 45 urte eta aurrera

KARATEA Luis Martilek 1978an Shotokan karate kluba sortu zuen Irurtzunen eta lan nekazina egin du urte luzez. Aurten Leire Meazak eta Ruben Trinidadak hartu dute bere lekukoa, helburu berberarekin: Sakanan karatea sustatzea eta erreferente izatea

entrenatzen, aurreko irakasleak, Edurne Alonsok, utzi zuenean. Orduetik Martilekin ibili da Shotokaneko irakasle gisa, eta hitz politikak ditu berarendako. "Pribilegioa izan da Luisekin karatea ikastea. Karateaz asko daki, lorpen handiak ditu eta karate

"JENDEA ANIMA DADILA; GURETIK PASA ETA KARATEA PROBATU DEZATELA" LEIRE MEAZA

arbitroa ere bada. Gure irakasle zen, baina askotan guraso bat bezalakoa. Karatean landu eta ezinbestekoak diren baloreak --errespetua, diziplina, erori ondoren altxatzea...-- oso ongi transmititu zizkigun. Zorrotza da, baina zentzu positiboan, ez autoritarioan. Edozein zalantza argitu eta laguntzeko prest, helburu bat lortzeko edo nonbaitera iristeko diziplina beharrezkoa zela erakutsi digu beti".

Aurten Shotokan karate klubeko arduradun eta irakasle izateari utzi dio Luis Martilek,

sasoi betean dagoela. 2.020an, 68 urterekin, karateko Seigarren Dan maila lortu zuen, gerriko txuri-gorria lortuz. "Hori goi goian zaudela erretiratzea da" dio Meazak, irakasle ohiaz harro. Lakuntzarrak gerriko beltza du, eta Lehen Dan maila, "Luisekin

"SAKANAN KARATEKA ONAK ATERA DIRA. LUIS IRAKASLE BIKAINA IZAN DA" RUBEN TRINIDAD

batera ateratakoa". Ruben Trinidad Bigarren Dan da.

Karatea

Karatea arte martzial tradizionala da, armarik gabeko borroka artea. Zenbait arte martzial txinatarretan oinarritzen da (wushu) eta 1933. urtean sortu zen ofizialki, gaur egun Okinawa izena duen uhartean zeuden borroka sistemak ere oinarri hartuta. Taekwondoa, judoa eta bestelako arte martzialekin alderatuta, "karatean askoz sakonago egiten dira mugimenduak. Gukeskua... elementu asko lantzen ditugu batera eta mugimendu ezberdinak sortzen ditugu, arte martzialean oinarrituta". Karatean bi modalitate lantzen dira, kata, hau da, karate mugimenduen erakustaldia, eta kumitea, bi karateken arteko borroka. "Ostikoak jo daitezke, baina badaude ukitu ezin diren puntu batzuk: genitalak, aurpegia, kopeta...". Karatean "edozein" aritu ahal dela dio Meazak, ez du aurretiazko trebetasunik eskatzen. "Edozein hasi daiteke. Aurten 37 urteko arbizar emakume bat hasi da, eta pozik dago".

Gerrikoak, mailaren erakusle

Karatean gerriko kolore bakoitzak maila bat erakusten du. Oinarrikoena txuria da eta ondoren laranja, berdea, urdina, marroia eta beltza datoz, baina bi mailen tartean bi koloretako gerrikoa eraman dezake karatekak. "Adibidez, gerriko horia lortzeko azterketa erabat ongi egin ez denean, kasu horretan gerriko txuri-horia ezartzea erabaki dezake azterketa egiten duenak, bi gerrikoen arteko trantsizio horretan zaudela adierazteko" azaldu du Meazak. Gerriko beltzaren ondotik, Dan mailak edo graduak daude, Lehen Dan mailatik Hamargarren Dan mailara. Bosgarren Dan mailara arte gerriko beltza janzten da, eta Seigarren Dan mailan gerriko txuri-gorria lortzen da. Gerriko gorena gorria da, Hamargarren Dan maila lortuz gero lortzen dena. "Nik Seigarren Dan mailara heltzea nahiko nuke" aitortu du Meazak.

Gerrikoak lortzeko azterketak irakasleek egiten dizkiete ikasleei, gerriko marroira arte. Gerriko beltza lortzeko eta Dan graduak lortzeko azterketak, aldiz, Nafarroako Karate Federazioan egiten dira. Dan mailak lortzea zaila da. "Asko entrenatu beharra dago. Ni aurten nire kabuz ari naiz entrenatzen, eta tarteka Rubenekin". Behin maila bat lortuta, ez da inoiz galtzen. "Ni gerriko beltza eta Lehen Dana izango naiz betirako eta Ruben Bigarren Dan".

Trantsizioa

Shotokan karate klubaren ardur hartzea erronka itzela izan da Leire Meazarendako eta Ruben Trinidadendako. "Duela bi urte Luisek esan zigun klubaren ardur hartzea berarendako, eta joan zen urtean azaldu zuen ikasturtea bukatuta utziko zuela. Presidente gisa jarraituko zuela, baina Rubeni bere lekua hartzea proposatu zion, eta nirekin batera jarraitzea. Eta horrela izan da. Aldaketa azkarra izan zen, ikasturte batetik besterakoa, baina pozik gaude. Ikasle gehiago ditugu eta gustura eta motibatuta daude. Hori da garrantzitsua. Bestalde, kudeaketako lanak, federazioarekin harremana, dirulaguntzak, txapelketak antolatu eta bestelakoak gu egiten hasi gara, Luisen laguntzarekin. Bion artean kluba aurrera ateratzen ari gara" dio Meazak. Ez dute Luis Martil

ahaztu, eta klubaren sortzaile eta arima izandakoari aitortza egitea dute buruan. "Guztia horren azkar gertatu denez, orain arte ez dugu astirik ere izan, baina oso argi dugu Luisi aitortza bat egin nahi diogula".

Zabal-zabalik

Shotokan karate klubak 25 ikasle ditu, hamahiru Lakuntzan, zazpi Irurtzunen eta bost Uhartarakilen. Lakuntzan bi talde dira eta Leire Meaza da arduraduna. Beste bi herrietako taldeak Ruben Trinidadek gidatzen ditu. Adinari dagokionez, gazteenek 5 urte dituzte eta helduenak 37 urte. Asteartean eta ostegunetan entrenatzen dute, 17:00etatik 18:00etara Irurtzungo kiroldegian, 18:30etik 19:30era Uhartarakilgo Mojen Etxean, eta 17:30etik 19:30era Lakuntzan, igerilekuen gaineko gelan, bi talde direlako. Karatea ezagutu eta probatu nahi duenak atek zabal-zabalik dauzka. "Edozein unean eman daiteke izena gurean. Pasa daitezela, aste batez probatu dezatela, eta gustuko badute, has daitezela".

Larunbatean, marsuak 11, Mendillorri jokatu den karate txapelketa batean parte hartuko

dute Shotokaneko ikasle gehienek. "Ikasleek erabakitzen dute katan, kumitean edo bietan parte hartu nahi duten. Beti esaten diet txapelketetan ongi pasatze-za goazela, ikastera eta esperientzia ona bizitzera. Saiklatzen bagara, ongi, baina bestela, ez dela ezer gertatzen".

Gorputzaren kontrola

Zer du karateak? Zergatik da gomendagarria? "Hasteko, beste kirol bat probatzeko, ohiko kiroletatik aldentzen dena. Bigarrenik, gure gorputzak nola funtzionatzen duen erakusten digulako. Karatean gorputz guztia lantzen baitugu. Gure gorputza ongi gidatu behar dugu, nahi ditugun mugimenduak ongi egiteko, eta beharrezko den indarra neurrian erabiltzeko. Norberaren gorputza oso ongi ezagutu behar dugu, eta jakin behar dugu noraino iritsi ahal garen. Hirugarrenik, defentsa ere erakusten digu. Finean, zure gorputzaren kontrola hartzen duzu. Eta lantzen ditugun baloreak (errespetua, diziplina, ez etsitzea) bizitzako gainontzeko esparruetarako primeran datoz. Beraz, sakandarrak animatu daitezela" gonbidatu du Leire Meazak.



Ruben Trinidad, ikasleekin karate kata mugimenduak lantzen.



Leire Meaza, Mendillorriko txapelketarako kata mugimenduak erreparatzen.

"Karate kluba esku oso onetan utzi dut"

LUIS MARTIL SHOTOKAN KARATE KLABEKO SORTZAILEA

Zergatik utzi duzu karatea?

71 urte bete ditut eta orain arte klubean egon naiz, baina une bat iritsi zen gainezka sentitzen nintzela. Pazientzia gutxiago nuen eta haurrekin egotea gehiago kostatzen zitzaidan. Alabak esan zidan karatea uzteko, gainezka ikusten ninduela. Beste gauza batzuk bizitzen hasteko. Eta karatea uztea erabaki nuen. Dena den, esku onetan utzi dut kluba, Rubenek eta Leirek oso ongi egiten dutelako. Badakite hor nagoela, edozein zalantza argitzeko prest, baina dena beraiek egiten dute.

Nola hasi zinen karatean?

Andaluziarra naiz jaiotzez. 17 urte nituela etorri nintzen Irurtzunera eta Inasan lan egin nuen, jubilatuta arte. Karatean lagun batengatik hasi nintzen, Gaspar Fernandezengatik, Iruñeko Kale Nagusian. Gutxika harrapatu ninduen eta gaur arte. Berak ez zuen gerriko beltza atera eta ni Seigarren Dan naiz, 2.020 urtetik. Gogorra izan zen, baina maila hori ez dit inork kenduko.

Seme-alabak ere karatean trebatu ziren.

Biak, Roberto eta Yolanda, nirekin eraman ditut beti. Roberto Nafarroako txapeladuna izan zen eta selekzioan zegoen, baina utziko zuela esan zidan, Xotan serioago aritzeko. Urte bat falta zitzaion gerriko beltza lortzeko, eta kolpea izan zen. Aste bat egon ginen hitz egin gabe (kar, kar). Biak Xotan daude, eta pozik. **Shotokanen lan handia egin duzu.**

Gustura ibili gara. Gure klubetik 60 gerriko beltz atera dira, eta

karateka oso onak, Nafarroako eta Espainiako Txapelketetan aritu direnak. Karatean gauza asko ikasten dira, bizitarako balore garrantzitsuak: errespetua, diziplina, lana... eta hori da garrantzitsua. **Bizitza guztia karatean. Zer eman dizu karateak?**

Asko. Bizitzeko modu bat, satisfazio pertsonal handia, osasuna, jende asko ezagutzea eta txikitatik nuen konplexu bat gaintzea. Hitz-motela naiz, eta karatean hasi baino lehen apenas hitz egiten nuen jendearekin. Ezin nuen. Lotsatzen nintzen, eta atzera egiten nuen. Behin Santanderren karate ikastaro batean geundela, batek barre egin zidan eta irakasleek kanporatu zuten, karatean errespetua ezinbestekoa delako. Horrek nire arazoa gaintzeko airea eman zidan, eta hitz egiteko lotsa gaintu nuen.



"KARATEAK ASKO EMAN DIT. BIZITZEKO MODU BAT, JENDE ASKO EZAGUTZEA ETA BALORE GARRANTZITSUAK"



Ruben Trinidad, bi ikasleren karate kumitea edo borroka lantzen.

"Bizitzako ametsetako bat bete nuen"

HAIZEA RAMIREZ DE ALDA POZUETA MENDIZALEA

MENDIA Unai Razkinekin batera Everest eta Annapurna lotu zituen 2022an, 900 kilometroko oinezko erronkan. Irurtzungo Mendi Jardueretan azalduko dute bizitakoa

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Martxoaren 17an hasiko dira Irurtzungo Mendi Jarduerak, Iratxo mendi elkarreak eta Irurtzungo Udalak elkarlanean antolatutako mendiari buruzko ekitaldiak. Egitarauaren barruan, marsuaren 19an, 19:00etan, Haizea Ramirez de Alda eta Unai Razkin mendizaleek proiektzioa eta solasaldia eskainiko dute: "Hiru hilabete 8000koen erresuman barrena. 900 kilometroko ibilaldia Everest eta Annapurna lotuz".

Benetan hiru hilabete egon zineten Nepalen ala izenburuak literatura puntua du?

(Kar, kar). Literaturatik gutxi du, hala izan zen. Joan zen urtean, 2022ko martxoan Nepalera joan ginen eta hiru hilabete eman genituen bertan: martxoa, apirila eta maiatza. Eta tarte horretan 60 egun pasatxo oinez eman genituen. Gure bigarren aldia zen Nepalen, lehen aldiz 2019an joan baikin, pandemia baino hiru hilabete lehenago, hain justu. Orduan hiru asteko trekkinga egin genuen Annapurnan. Gogoz geratu ginen eta itzultzea erabaki genuen, baina denbora gehiagorekin eta beste erronka batekin.

Zein zen erronka berria?

Everesteko eremua Annapurna-ko eremuarekin lotzea, eta 900 kilometro horiek oinez egitea, hau da, autorik, furgonetarik edo bestelako garraiorik erabili gabe. Eta erronka gaintzea lortu genuen.

Hiru hilabete asko dira. Atzean antolakuntza handia egongo zen guztia behar bezala koadratzeko, zuen lanak eta bidaia bera. Erronkako xehetasunak ongi prestatu eta arreakisita eramango zenituzten.

Puntu batera arte bai. Egin behar genituen etapak eta halakoak aurretik begiratu genituen. Guk egin genuena, pixka bat moldatuta, Great Himalaya Trail ibilbidearen zati bat zen. Aipatu



Haizea eta Unai Cho La pasabidean (5.420 m). Solo-Khumbun, Everesteko eremuan.

"EZ DAKIT ZER DUEN NEPALEK, BAINA ARGI DUGU BUELTATUKO GARELA"

HAIZEA RAMIREZ DE ALDA

traila Himalaia guztia zeharkatzen duen zeharkaldi luze bat da, eta guk zati bat egin genuen. Beraz, etapei buruzko informazioa bazegoen, eta guk gutxi gorabeherako ideia bat egin genuen. Ez genuen dena itxita eraman nahi, baina bai ideia bat izatea egunean zehar egin genitzakeen kilometroei buruz, edo jakiteko aurretik zein desnibel genuen, erronka egiteko zenbat egun beharko genituen jakiteko. Baina horretaz gain, ez genuen aurretik lotutako ezer. Izan ere, han oso erraza da, momentuan egiten da: toki batetik besterako garraioa lotu, ostalua hartu edo bazkaltzeko tokia hartu... Zentzu horretan Nepal oso herrialde erraza da bidaiatzeko.

Ohituta egongo dira, mendi espedizio asko egoten baitira.

Zonalde askotan bai. Baina zonalde ezagunenak lotzeko tarte

edo bide hori zen zailena. Guk ibilbide guztia oinez egiten genuenez, batere turistikoak ez ziren gune eta txoko batzuetatik pasatu behar izan ginen, eta horiek ziren konplexuenak, ez baitzeuden turismoa hartzeko prest. **Nolako erronka izan zen? Zaila, polita, une gogorak izan dituenak, une ederrak...**

Pixka bat denetatik izan zuen, baina normalean gauza zailak edo gogorak ahaztu egiten dira eta onekin geratzen gara. Nik esango nuke bizitzako ametsetako bat bete nuela honekin. Sentsazio hori oso gutxitan edukitzen da; oso berezia izan zen.

Everest eta Annapurna lotuz 900 kilometro egin zenituzten oinez. Zein altueratan ibili zineten?

Gorabehera handiak izan genituen. Ibilbide osoa zen gora eta behera aritzera. Hiruzpalau aldiz 5.000 metrotik gora igo ginen, gero agian 1.000 metrotara jaisten ginen, gero berriro gora... Gehienez 5.600 m ingurura igo ginen. **Oinez joaten zinetenez, material guztia gainean eramango zenuten, motxilan. Gogorra egin zitzaizuen?** Azkenean halakoetan material aukeraketa egin behar da, dena ezin baita gainean eraman. Adi-

bidez, guk zapatila pare bat eraman genuen bakarrik eta zapatila horiekin egin genuen ibilbide osoa. Txikituta bukatu zuten (kar, kar). Aurretik Himalaia ezagutzen genuenez, bagenekien ibiliko ginen eremuetan elur gutxi zegoela. Momentu batean kranpoi txiki batzuk jarri genizkien zapatilei eta ongi moldatu ginen.

2022ko martxoa, apirila eta maiatza. Zein sasoietan zeuden Nepalen?

Han espedizioen denboraldi altua udaberria eta udazkena izaten da, uda montzoi garaia delako eta orduan euriteak daudelako. Egia esan, oso aukeraketa ona egin genuen, joan ginenean oraindik ez zegoelako apenas turistik eta bakarrik ibili ginelako. Eguraldia hotza zen, hori bai. Agian jaiki eta kantiplorako ura izoztuta zegoen, eta baita hortzetako pasta ere, nahiz eta nezeserra logelan egon. Baina zerua garbi eta mendirako eguraldi ona egin zuen.

Zer ikusiko dute marsuaren 17an Irurtzungo Kultur Etxera zuen proiektzio ikustera hurbiltzen direnak?

Bideo bat prestatzen ari gara. Material asko dugu eta ezin dugu guztia sartu, baina han hartutako bideo zati txikiekin bideo bat muntatzen ari gara, zeharkaldi osoa irudikatzen duena. Gutxi gorabehera 30 minutuko bideoa izango da. Hura ikusita, zeharkaldiaren inguruko bitxikeriak kontatzeko eta solasteko aukera izango dugu, eta sortzen diren galderak erantzungo ditugu.

Zuretako zein izan zen ibilbideko tokirik edo momenturik politena edo bereziena? Edo ez zenuke jakingo esaten?

Momentu bereziak egon ziren, baina agian ibilbidearen hasiera nabarmenduko nuke. Everesteko zonaldean inguruan 8.000ko batzuk ikustea ederra izan zen, baina batez ere Everest ikustea oso berezia izan zen. Bakarrik geunden, ia ez zegoen jenderik, eta oso polita izan zen. Han inguruan bizi diren sherpak hango etnia dira, oso jende jatorra. Haien urteberri eguna bizitzeko aukera izan genuen, eta Pasanten Pasang Temba sherparekin bere etxean egon ginen. 1980an Martin Zabaletarekin Everest igo zuen Pasang Tembak, eta oso ongi hartu gintuen. Zonalde hori oso berezia izan zen. Aurrerago Manasluko oinarritzko kanpamenduan egon ginen. Justu hilabete batzuk lehenago Alex

Egitaraua

Irurtzungo Mendi Jardueren egitaraua.

La Voz de Iñaki

Marsuak 17, ostirala, 19:30ean Kultur Etxean. Iñaki Ochoa de Olza Fundazioa eta S.O.S Himalayaren proiektzioa eta solasaldia. Sarrera: borondatezkoa, fundaziorako.

Martxa nordikoaren hastapen ikastaroa

Marsuak 18, larunbata, 10:00etan Iratxo elkartean. Gema Urdanitz (Edukanatura). Doan.

Hiru hilabete 8.000koen erresuman barrena

Marsuak 19, igandea, 19:00etan Kultur Etxean. Haizea Ramirez de Alda eta Unai Razkinen proiektzioa. 900 kilometroko ibilaldia Everest eta Annapurna lotuz. Doan.

Importancia de una correcta alimentación

Marsuak 23, osteguna, 19:00etan Kultur Etxean. Doan. Javier Anguloren eta Rodrigo Anguloren (Esportrium Nutricion) hitzaldia.

Manaslu, Arimaren Mendia.

Alex Txikon

Marsuak 24, ostirala, 19:30ean Kultur Etxean. Sarrera: 8 euro. Proiektzioa eta solasaldia.

Txikon egon zen bertan, Manasluko neguko saiakera egiten, lortu zuen erronka.

Hain zuzen ere Alex Txikon Irurtzungo egongo da, Mendi Jardueratan, Manasluko espedizioaren berri ematen.

Bai. Bera han imajinatzea berezia izan zen. Gure ibilbidean halako une berezi asko izan ziren. **Zer dute Everestek, Annapurnak... azken finean Himalaiak, horren berezi egiten duena?** Paisaia ikusgarria. Guri mendia asko gustatzen zaigu eta guztia iruditzen zaigu polita, baina Himalaiakoa, 8.000 metroko paisaia pauso bat gorago dago. Hango glaziarrak, mendiak... beste handitasun bat da. Baina batez ere herrialde bera da ederra. Hango jendea, bizimodua... asko gustatzen zaigu.

Himalaiara itzuliko al zarete?

Ez gara bidaietan tokiak errepikatzeakoa baina Nepalek ez dakit zer duen lehenengo aldiz egon ginenetik itzuliko ginela ziur genuela. Eta orain ere bueltatuko garela argi dugu. Nepalen bestelako erronka asko egiteko aukera dago, bidaia gehiago egiteko adina.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINOLEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 10

OLAZTI Tailerra.

Sakanako gaztetxoaren artean genero rola, indarkeria matxistaren prebentzioa eta LGTBI+ gaiak lantzeko tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko Olaztiko eta Ziordiko gazteendako. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta eta Eihera kooperatibak bideratuta.
17:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

ALTSASU M8. Gazte agenda.

Anitzak gara, orain askeak memoria jokoak. Altsasuko Udaleko Berdintasun eta Gazteria zerbitzuek martxoaren 8aren harira antolatutako egitarauaren barruan.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pediatrak Altsasun orain! Osasun publiko eta kalitatezkoa guztiontzat kontzentrazioa.
18:00etan, udaletxearen aurrean.

ALTSASU Mustutzea.

Biak Bat elkartearen egoitza berriaren ate irekiera.
18:00etatik 19:30era, Biak Bat egoitza (Amandrea kalea z/g).

ETXARRI ARANATZ Bakarrizketa.

Joxe Farrak Joxe Aldasoro etxarriarraren bakarrizketa saioa.
22:00etan, Leku Ona tabernan.

ALTSASU M8. Afaria.

Erraillak antolatutako afari feminista mistoa. Ondoren, bingo musikatua.
22:00etan, Kukurreka elkartean.

LARUNBATA 11

OLAZTI M8. Jardunaldia.

Sorgin gaua, gaztetxean.

12:00 Karropoteoa.

14:00 Bertso bazkaria: Idoia Granizo eta Ainara Ieregi.

18:30 Goxe Txarangarekin kalejira.

23:00 Kontzertuak: Annekdotas, Neskatasuna, Goxo Txaranga eta Sutan Ortz.

ARBIZU Tailerra.

Sakanako gaztetxoaren artean genero rola, indarkeria matxistaren prebentzioa eta LGTBI+ gaiak lantzeko tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko Arbizuko gazteendako. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta eta Eihera kooperatibak bideratuta.
17:00etatik 20:00etara, udaletxean.

ETXARRI ARANATZ Antzerkia.

Mairua antzerki taldearen *Intxaurra* antzezlanaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

LaMov ballet konpainiaren *El Lago* dantza ikuskizuna.
19:30ean, lortia kultur guneko areto nagusian.

LAKUNTZA Kontzertua.

Su Ta Gar taldearen kontzertua.
21:00etan, kultur etxean.

URDIAN M8. Afaria.

Urdiaingo Emakumeen afaria.
21:30ean, Tintiniturri elkartean.

ETXARRI ARANATZ Kontzertuak.

Nafarroa 1512 eta Rebel Noise taldeen kontzertua eta Pineapple Sweets taldearen pintxada. Nafarroa 1512 taldeko abeslariaren agur kontzertua.
22:30ean, gaztetxean.

IGANDEA 12

ALTSASU Txirindularitza.

XXXVII. Udaberri Saria junior mailako txirindularitza proba. 50 km. Burunda Txirindularitza Taldeak antolatuta.
10:30ean, lortia zabalgunetik.

OLAZTI Herri kirolak.

XXXVI. Nafarroako Kirol Jokoen Herri Kirolen bigarren jardunaldia.
10:30ean, frontoian.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Irati gaurkotasuneko filmaren emanaldia euskaraz
Ostirala 10 19:00
Igandea 12 19:30

Momiak familiarterko filmaren emanaldia euskaraz
Igandea 12 17:00

Irati gaurkotasuneko filmaren emanaldia gaztelaniaz
Astelehena 13 18:00

El cafán azul gaurkotasuneko filmaren emanaldia euskaraz
Ostirala 16 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Rabiye Kurnaz contra George W. Bush zineforum filmaren emanaldia
Igandea 12 19:30

La amiga de mi amiga zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 16 19:00

OLAZTI Ikuskizuna.

Txirri, Mirri eta Txiribitoen pailazoaren *Pailazoak* ikuskizuna.
17:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN M8. Kontzertua.

Naroak taldearen kontzertua. Irurtzuno Emakume taldearen Emakumei buruzko 30. jardunaldien barruan.
18:00etan, Barazkigunen.

ASTELEHENA 13

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEARTEA 14

ALTSASU Tailerra.

Alzheimerren gaixotasunari buruzko prestakuntza.
16:30ean, osasun etxean.

ITURMENDI M8. Solasaldia.

Maddi Ane Txoperena idazlearen *Ez erran inori* liburuaren solasaldia. *Literatura Geraldia* egitasmoaren eta Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuaren martxoaren 8aren harira antolatutako programaren barruan.



ALTSASU Uhartte Arte Garaikideko Zentroko Uholdeak programaren *Materialak amatu* erakusketa.

Apirilaren 16ra arte. lortia kultur guneko erakusketa aretoan.



18:00etan, udaletxean.

ALTSASU M8. Irakurle taldea.

Marcela Serrano idazlearen *Diez mujeres* liburuari buruz ariko da gaztelaniazko irakurketa taldea. Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuak martxoaren 8aren harira antolatutako egitarauaren barruan.
18:00etan, lortia kultur guneko erabilera anitzeko gelan.

ASTEAZKENA 15

IRURTZUN Irteera.

Zinemara ateraldia. Irurtzuno Emakume taldearen Emakumei buruzko 30. jardunaldien barruan.
18:00etan, Foru plazan.

ALTSASU M8. Irakurle taldea.

Marcela Serrano idazlearen *Diez mujeres* liburuari buruz ariko da gaztelaniazko irakurketa taldea.
18:00etan, lortia kultur guneko erabilera anitzeko gelan.

OSTIRALA 17

ALTSASU M8. Gazte agenda.

IRURTZUN Irurtzuno pintura tailerreko *Emakumea 8 eratan* erakusketa. Irurtzuno Emakume taldearen Emakumei buruzko 30. jardunaldien barruan.
Martxoaren 31era arte. La Tahona eta La Moncloa tabernetan.



UHARTE ZENTROA

SAKANA Emakumeen arteko *sareak ehuntzen* ekimeneko *Patchwork lanaren* erakusketa. **Martxoak 10, Urdiainen; martxoak 11, Ziordian; martxoak 12, Lakuntzan; martxoak 14, Iturmendin; martxoak 17, Bakaikun.**

Rap ezkuak musika tailerra, euskaraz. Altsasuko Udaleko Berdintasun eta Gazteria zerbitzuek martxoaren 8aren harira antolatutako egitarauaren barruan.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

URDIAN M8. Ipuin kontalaria.

Berdintasun istorioa ipuin kontaketa.
18:30ean, liburutegian.

ZIORDIA Liburu aurkezpena.

Peru Camararen *Galerna* liburuaren aurkezpena, gaztelaniaz.
18:30ean, liburutegian.

ALTSASU Performancea.

M-A-T-E-R-N-I-D-A-D Farys Falcon artistaren performancea *Uholdeak* programaren barruan.
19:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Proiekzioa eta solasaldia.

La voz de Iñaki Iñaki Ochoa de Olza fundazioaren dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia, Mendi Jarduerak programaren barruan.
19:30ean, kultur etxean.

ESKELA

Mario López de Uralde Arrieta

Maite zaitugu, aitona

"Ahazten dugun hura
baizik hiltzen ez denez,
maite zaitugu, eta
egunero gogoratzen, bizirik"

Altsasun, 2023ko martxoaren 5ean

ESKELA



Mario Lopez de Uralde Arrieta

Une latz hauetan
familiarrekin bat egiten dugu

ehbildu

Altsasu

OROIGARRIA



Fran Balda Araña

II. urteurrena



Bi urte pasa dittuk fan hintzenetik,
beya egunik etziok hitas akordatzen
ez ganik

Hire familia

Arbizun, 2023ko martxoaren 13an

OROIGARRIA



Mitxel Agirre Gorospe

I. urteurrena



Zure kuadrillak ez zaitu ahazten
Beti egongo zara gure bihotzetan

Olaztiko zure kuadrila

OROIGARRIA



Mitxel Agirre Gorospe

I. urteurrena

Beti gurekin

Zure familia

2023ko martxoaren 10ean



Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

JAIOTZAK

- **Josue Abajo Antimasberes**, marsuaren 3an Altsasun
- **Natale Lazkoz Etxebeste**, marsuaren 4an Lakuntzan

HERIOTZAK

- **Mario Lopez de Uralde Arrieta**, marsuaren 5ean Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ALOKAGAI

Pisu bat alokatzen da
Sakanan: 683 162 018.

SALGAI

Etxarri Aranatzen pisu zentrikoa salgai: hiru logela, bi komun, sukaldaria, egongela eta trastelekua, 78 m karratu ditu eta bizitzera sartzeko prest dago. Informazio gehiago 628 265 413 Edurne.

NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulego autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatuzko bulego; Wifi, inprimagailua, berogailua, kumuna eta officea ditugu. Aukera paregabe! Informazio gehiago 948 562

604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LAN ESKAINTZA

Aralarko San Migel Santutegiko taberna jate-txean: Zerbitzariak eta sukaldaria (edo sukaldari laguntzailea) behar ditugu asteburutan lan egiteko. Informazio gehiago 680 444 457

OHARRAK

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda marxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioko zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetatik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi

duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

BTT zeharkaldian izena emateko epea zabalik: Ekainaren 11n egingo da zeharkaldia. Apirilaren 30a baino lehen izena ematen baduzu inskripzioa merkeagoa da. Informazio gehiago eta inskripzioak <https://www.rockthesport.com> web orrian.

Aisiz Blai programan izena emateko epea: 3 - 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako Ludoteka zerbitzua egongo da apirilaren 11tik 14ra izango da 8:30tik 13:30ra. Izena emateko epea martxoaren 13tik 17ra. 948 012 012 telefonora deituz (08:00etatik 18:00etara) edo www.altsasu.net web orrian.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Mugako egoeren absurdoia

Hiru urteren ondoren Tarima Beltza taldeak antzezlan berria mustuko du martxoaren 25ean: 'Sin salida'. Elkar ezagutzen ez duten eta oso desberdinak diren sei pertsonaiak dira komediaren protagonistak, eta egoera "zentsugabeak" sortzen dira

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Zer gertatuko litzateke lau ezezagun merkatal gune bateko igogailu batean itxita geldituko balira? Eta merkatal gunean bakarrik egongo ez balira? Egoera "komiko eta absurdo" horretan oinarritzen da Tarima Beltza Antzerki Taldeko *Sin salida* antzezlan berria. Hiru urte apenas eszenatokietara igo gabe, antzezlan dibertigarri batekin itzuliko dira eszenara. Martxoaren 25ean, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean aurkeztuko dute lan berria.

"Gure azken aurkezpena pandemiaren aurretik izan zen, *A la deriva* antzezlanarekin, ordu-ra arte egindakoaren zerbait oso desberdina zela". *A la deriva* Tarima Beltzak Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuarekin eta Médicos del Mundo GKEarekin elkarlanean egindako errefuxiatuen inguruko lan bat izan zen, Merche Herrera antzerki taldeko kideak azaldu bezala. "Pandemia etorri zen, eta dena bertan behera gelditu zen". Hala ere, hiru urte hauetan "zerbait" mugitu dira eta, esaterako, Dulantziko Antzerki Jaialdian izan ziren. "Pandemiaren aurretik izena eman genuen, eta hartu gintuzten". *Madres y pasotas* haien aurreko lanarekin egon ziren. "Zerbait berria egiteko gogoz geunden eta aurrean estreinatuta behar genuela pentsatu genuen". Antzerkia "behar" zuten.

Antzokira itzultzea erabaki zuten, "baina betetzen gintuen ezer ez genuen aurkitzen", esan du Juan Manuel Herrero *Zapa* taldeko kideak. "Lan pila bat bilatzen eta irakurtzen egon ginen". Komedia bat egin nahi zuten, "barre egiteko eta gustura egoteko". Izan ere, gaineratu



Juan Manuel Herrero eta Merche Herrera Tarima Beltzako kideak.

duenez, *A la deriva* "opari bat" izan zen arren, "asko" kostatu zitzaizen egitea. "Ez genuen ezer topatzen eta orduan burura etorri zitzaidan Isabel Agirrezabala lakuntzarra, Donostiako antzerki talde batean dagoela, eta noizbait esan zidala antzezlan batzuk idatzita zituela". Antzezlan bat bidali zien, "baina bost pertsonaia ziren eta gu sei ginen". Herreroen eta Agirrezabalaren artean antzezlan moldatu zuten, "gauzatxoak" betetzen joan ziren eta horrela sortu zen *Sin salida*.

Lau pertsona merkatal gune bateko igogailu batean gau batean itxita gelditzen dira eta "istorio pila bat" gertatzen zaizkie. Merkatal gune sotoan bukatzen duten arte. Bertan okupa bat dago, baita segurtasun langilea ere. "Pentsa soto batean amaitzen duzula ezagutzen ez duzun jendearekin, bakoitza bere istorio, pentsamendu eta abarrekin, eta bertan gaua pasatu behar duzula ez duzulako ateratzeko modurik". Mugako egoeratan alde dibertigarriak eta aldrebesak gertatzen dira. "Komedia bat da bere absurdoarekin, zentsugabea egoera bat delako".

Ezezagunak

Aurrejubilatuta bat, etxeko andre bat, banandu berri den gizon parrandazale eta ligoia eta estutasun egoera batean dagoen exekutiba bat dira *Sin salida* antzezlaneko lau pertsonaia nagusiak, sotoan dauden segurtasun langilea eta okupa gehitzen zaiela. "Bakoitzak badu bere istorioa eta izaera bat". Lan oso "dibertigarria" dela esan dute antzerkigileek. "Isabelek kaxoi batean izan du eta ez da inoiz ausartu ateratzera, eta gu animatu gara".

Isabel Arrizabalaga lanaren egilea da, Ion Barbarin beste behin Tarima Beltzaren zuzendaritzapean jarri da, eta aktoreak Juan Manuel Herrero, Merche Herrera, Jose Luis Liberal, Nahikari Gonzalez, Olibi Galparsoro eta Pili Maldonado dira. "Pertsonaia bat aldatu behar izan genuen gizonezkoa zelako eta emakumezkoa bihurtu dugu, eta beste bat sortu, baina bazirudien lana guretako egina zegoela". Idazleak taldea ezagutzen zuen arren, ez zuen antzezlan talderako sortu, "baina badirudi horren arabera idatzitako duela eta alderantziz izan da".

Mugako egoeretan harremanetan etapa desberdinetatik

pasatzen dela erakusten duela azaldu du Herreroak. "Lau ezezagun dira eta bakoitzak bere istorioa kontatzen du. Gai sozial batzuk ere lantzen ditu". Momenturen batean lau pertsonaia "berdina" pentsatzera iristen direla gaineratu du: "Elkar laguntzen dute. Batzuetan horrelako egoera batean errazagoa da ezagutzen ez duzun pertsona bati zure arazoak kontatzea ezagutzen duzun pertsona bati baino; ez dizulako epaituko". Momenturen batean denak bihotzak irekitzen dituzte.

Entrenamendua

Edozein antzezlanekin bezala, testua irakurtzen aspaldi hasi ziren; udan lehenengo irakurketak egin zituzten. Ondoren, udazkenean entseguak "serio" hasi zituzten Barbarinekin. "Normalean horrela egin izan dugu beti". Aldiz, ia hiru urte entseatu gabe egon ondoren "entrenamendua" falta zaiela aitortu dute antzerkigileek. "Kostatzen ari zaigu pila bat testuak barneratzea". Entseguak astelehenetan izatea eta Eguberri, Santa Ageda eta Inauteri festak erdian izateak ere ez duela asko laguntzen esan dute. Orain, intentsiboak egiten dituzte igandeetan. "Iortian ixten gara eta martxa hartzen dugu". Antzezlanaren zailtasun handiena "erritmo bizian" dagoela uste du Herreroak. "Erritmoa behar du eta horretarako testua oso ongi menderatu behar duzu. Baita mugimenduak ere". Entseguetan zuzendariak ikusten du zerk funtzionatzen duen eta zerk ez, "eta agian hurrengo entseguan zerbait aldatzen dizu".

Martxoaren 25ean mustuko dute *Sin salida* eta dagoeneko sarrerak Iortia kultur gunearen webgunean eta txarteldegian salgai daude zazpi eurotan, zortzi eurotan egunean bertan. "Jendea animatu nahi dugu. Oso ongi pasatuko du, eta guri ere fabore handia egingo digute". Bi urte geldirik egon ondoren lanean jarraitzeko eta gustatzen zaiena egiten jarraitzeko "bultzada" behar dute.

**MARTXOAREN 25EAN
MUSTUKO DU TARIMA
BELTZA TALDEAK 'SIN
SALIDA' ANTZEZLAN
BERRIA, IORTIAN**



Maddi Ane Txoperena Iribarren idazlea. GARAZI CONDE ORUBE

"Sufritu dut, baina sendatzailea izan da"

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN IDAZLEA

Haurtzaroan sexu abusuak pairatu dituen gazte baten istorioa kontatu du 'Ez erran inori' liburuan. Martxoaren 14an solasaldia egingen du Iturmendin

Eneida Carreño Mundiñano eta Erkunden Ruiz Barroso ITURMENDI

Sakanako Mankomunitateko Euskara eta Berdintasun zerbitzuek antolatutako Literatura Geraldia egitasmoaren barruan Maddi Ane Txoperena Iribarren idazlearen *Ez erran inori* liburuari buruzko solasaldia izanen da martxoaren 14an, asteartea, 18:00etan, Iturmendiko udaletxean. *Ez erran inori* liburuak Igartza saria irabazi du eta 111 Akademiaren Saria irabazteko hautagaietako bat da. Haurtzaroan sexu abusuak pairatu zituen Lideren istorioa kontatzen du.

Nor da Lide?

Donapaleun sortutako neska gazte bat da. Baionara bizitzera joaten da eta haurtzaroan sexu abusuak jasan zuen. *Ez erran inori* liburu osoan zehar Libek kontzientzia hartzen du.

Helduago egiten denean azaleratzen da, ezta?

Liburuaren lehenengo kapituluaren Libek izan zuen sexu abu-

sua kontatzen da eta gero denboran horrelako salto bat egiten da eta irudikatu nahi nuen nolabait aunitzetan sexu abusuak eta horrelako traumak sortzen dituzten edo sor ditzaketen gertakari bortitzen aurrean askotan giza gorputzak egiten duen mekanismoa amnesia dela. Gertatu zaizun hori gogorregia da oroitzeko, eta ahaztu bezala egiten duzu. Denbora pasatu ahala gorputzak ahal duenean edo jasateko prest dagoenean oroitzapenak etortzen hasten dira. Hori da Lideri gertatzen zaiona. Haurtzaroan bizi izan zuen, baina erasotzaileekin bizikidetzat bat izan behar zuen eta bizirauteko ahantzi egin zuen. Gero, bat-batean, gaztaroan oroitzapenak burura etortzen hasten zaizkio, sexu abusuaren albisteak entzuten dituen edo sexualitate aipamenak edo praktikak dituen. Hor hasten da ezinegona. Ez daki oso ongi zer den oroitzen duen hori. Lotsa eta errua sen-

titzen du, eta bere mina forma hartzen hasten da.

Zein izan da zure inspirazio iturria? Nondik sortu zen ideia?

Ez dago sekreturik. Nik neronek sexu abusu bat bizi izan nuen umea nintzela eta interes bereziko gai bat izan da. Konzientzia izaten hasi nintzenez horrelako zerbait pasatu zitzaidala ulertu nahi nuen zer ari zitzaidan gertatzen eta, gaiaren inguruan irakurri dut eta tailer desberdinetan parte hartu dut; musika, podcast oso interesgarri bat entzun nuen eta gogoan neukan honekin zerbait berezia egiteko, kezka berezia sortzen zidalako. Literatura forma hartu zuen.

Zergatik fikzioa?

Ez diot interes berezirik aurkitzen nire kasu zehatza kontatzeari nahiz eta egin nezakeen. Askotan testigantzak morbotik bilatzen ditugu eta literatura niretzako gauzak beste modu batera azaltzeko modua izan da. Fikzioaren bitartez saia zaitez-

ke beste modu batera azaltzen gauzak, ez hain modu teorikoan; eszenen bitartez edo deskribapenen bitartez. Ulermenaren bertzelako eremuetara iristeko eman dezake literaturak eta sorkuntzak orokorrean. Edozein gai plazaratzerako garaian azal dezakezu modu teoriko batean edo egin dezakezu koadro bat edo kanta bat gai horren inguruan. Bide batetik edo bestetik gauza diferenteak lortuko dituzu. Erabakia hortik joan zen; beste leku batzuetara iristeko.

Txarrenari onena atera diozu?

Maila pertsonalean hala izan da. Gaiarekiko ezinegon berezi bat nuen eta niretzat ariketa anitz interesgarria izan da liburu idaztea. Dezente sufritu dut ere. Nahiz eta fikziozko liburu bat sortu, gertatzen zait idazten nagoenean asko sartzen

naizela istorioan eta horrek sufrimendua sortu zidan idatzi nuen momentuan. Baina aldi berean oso sendatzailea izan da eta ahalduz bide eman dit ere bai. Sufrimendutik ere gauza politikak atera daitezke eta nahiko kontent nago zentzu horretan. Pertsonalki, eta bertze batzuei balio badie ere.

Nolako izango da Iturmendiko solasaldia?

Ez dut gauza berezirik prestatu. Liburu zergatik idatzi dudan oinarritzko azalpen bat emango dut eta gehien interesatzen zaidana da irakurleekin edo entzuleekin elkarri eragitea. Animatzen ditut etortzen direnean lasai asko galderak egitera edo iritziak botatzera edo nahi dutena esatera. Interesa duten horretan sakontzeko. Niretzat hori aberasgarria da.



BAZTERRETIK
URDIAINGO
LIBURUTEGIA

Liburua eskuarte ongiatorria udaberriari

Estupor y temblores (Izua eta dardarak). 1999. urtean argitaratu zen eleberria daukazu hau; egia da, ez da azken nobedadea, baina japoniarren laneko harremanak eta hierarkia ulertzeko edozein dokumental baino hobea delakoan nago. Amélie Nothomb idazlea Japonian jaio zen, Bruselako familia batean eta 22 urterekin mundu mailan dagoen enpresa handienetako batean hasi zen lanean, Yumimoton.

Euskarazkoan **Olivetti** Aitziber Etxeberrriarena: Haserre dago Ingrid. Aita berriki hil zaio eta bakarrik sentitzen da. Testamentuak aitaren azken borondatea ez ezik amarena dakar. Berarentzat esanahirik ez duen Olivetti idazmakina baten argazki zahar bat eta ulertzen ez duen aipamen bat nahikoa izango dira bere bizi hankaz gora jartzeko. Anima zaitez liburu irakurtzera eta Ingriden

gurasoen iragan bitxia ezagutzeko Ingriden hartzen duen ezustekoa zuzentzat ere harrigarria izango da.

Eta ni bezala zientzia-fikziozaleak bazarete hemen duzue euskarazko genero honetan hain urriak diren liburu berria: **EUSKALIA**.

Barre egingo duzue kontakizun lotsagabe eta zirikatzaile honekin. Hamalau galaxiaz osatuta dagoen Euskalia ezagutzeko aukera izango duzue, berdintasuna eta justizia soziala bermatuta dagoen gizartea, non euskaldunak buru diren. Beti dago matxinatu nahi duen baten bat, ordea: Muturgogor barrutian, garai bateko espainiar kultura eta hizkuntzaren gailentasuna berreskuratu nahi luketen erresistentziako kideak. Istorioaren garapena jakiteko, joan zaitez zure herriko liburutegira eta eskuratu, ez zara damutuko.

Azkena hurrei zuzendutakoa izango da: **Sumendi bat daukat**. Mirian Tiradok emozioak lantzeko zenbait ipuin dauzka, eta, oraingoa, haserretzen garenean gure barnean pizten den sumendi hori nola kontrolatu irakatsi nahi digu. Eskuarte liburu bat duzula, emaiou ongiatorria udaberriari!



Natalia Isla Sarratea arte komisarioa 'Materialak amatu' erakusketaren aurkezpenean.

Artearen amatasuna

Arte garaikidea Nafarroan zabaltzeko Uharteko zentroko 'Uholdeak' programaren laugarren edizioa aurkeztu dute. Besteak beste, 'Materialak amatu' erakusketa apirilaren 16ra arte egonen da ikusgai Iortia kultur gunean. Zaintza da gai nagusia

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Amatasun esperientzia pertsonalarekin sortu zitzaion Natalia Isla Sarrateari amatasuna eta artearen arteko harremanaren inguruko interesa. "Zenbait kontraste sortu zaizkit; artearen munduan lan egiten jarraitzea eta alabak hezten jarraitzea. Kontziliarioak dituen gatazka guztiak artearen historian nola islatu diren oso interesgarria iruditzen zitzaidan". Txiletik duela hiru urte iritsi zen Nafarroara, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan Uharteko Arte Garaikideko Zentroarekin elkarlanean egiten den arte master bat egin zuen. "Hor ezagutu nuen zentroaren produkzio lerroa eta bertan garatu nuen nire Master Amaierako Lana amatasunaren inguruan". Maria ama birjinaren figuraren errepresentazioa izan zen MALaren gaia.

Ikerketa egiten ari zela Islak Uharteko zentroak duela lau urte antolatzen duen Uholdeak programaren komisarioa izateko gonbidapena jaso zuen. Uholdeak arte garaikidea Iruñetik deszentralizatzeko eta Nafarroa osoan zabaltzeko Uharteko zentroak Nafarroako Kutxa eta La Caixa fundazioak sustatzen duten egitasmoa da. Programa Altsasun, Agoitzen eta Tafallan izanen da, eta lehenengo geldialdia Iortia kultur gunean egin du. Martxoaren 3an mustu zuten *Materialak amatu* (ama izan/egin) erakusketa eta api-

ERAKUSKETARAKO AMATASUNA ETA ZAINZA IZAN DITU OINARRI NATALIA ISLA ARTE KOMISARIOAK

rilaren 16ra arte egonen da ikusgai. "Programa garatzean aukera izan nuen artistak bere estudioan ezagutzeko. Amatasunaren eta zaintzaren gaia sortu zen". Angela Moreno, Amaia Gracia Azqueta, Berta Osés Beruta, Oihane Mcguinness Armendariz, Txaro Fontalba eta Zarys Falcon artisten lanak osatzen dute erakusketa. Programaren barruan Zarys Falconen performancea eta Nerea Balda idazle irurtzundarraren idazketa eta irakurketa tailerrak izanen dira ere.

Hasiera batean amatasuna "karga bat" duen hitz bat dela esan du Islak. "Lan egin dudazazpi artistetatik bi bakarrik dira ama. Ama ez direnei zaila egiten zaie amatasun horretara gerturatzea. Baina konturatu ginen amatasunari buruz hitz egiten dugunean materna-

jeari edo maternazgoari buruz hitz egiten dugula". Hau da, emakumeari esleitu zaion "sistemen" zaindariaren figura. Denak "zainduak" izan dira ere.

Zaintza

"Ikerketa oso interesgarria izan zen". Angela Morenoren katalogo batetik hasi zen. "Bizitzaren lehenengo etapak biltzen zituen eta haurdunaldia nabarmentzen zuen". Islak obra horietan amatasunaren barruan "krisi antzeko bat" ikusi zuen. "Amatasun hori erakustea oso interesgarria iruditu zitzaidan, leundu gabe, bere itzalekin". Gaia garatzen jarraitu zuen eta Txaro Fontalbarene lana aurkitu zuen. "Amatasun eta zaintzari kritika bat egiten zion, perspektiba politikotik eta feministatik: zer suposatzen du amatasunak gaur egun". Zaintzaren krisian oinarritu zen, "baina kritikatik azaleratu nahi nuen". Bide horretan Oihane Mcguinness erakusketako gazteenarekin topo egin zuen, baita Berutarekin ehun-teknikak proposatzen dituela. "Ehun-teknikak arte garaikidean sartu nahi nituen ere, askotan aldeniak direlako artisautza bezala ikusten direlako".

Erakusketa kolektiboetan artista bakoitzaren lanak isolatuak egoten dira. Bakoitzak bere tokia du. Baina Islak komisariatu duen erakusketa denak elkarrekin dira. "Osotasun" bat dute. "Estudioetara egindako bisitetan konexioak aurkitu nituen. Esaterako, figura esferikoak hiru artistak lantzen zituzten eta galdetu nien ea elkarrekin jarri genezakeen". Lanak haien artean gurutzatzen dira eta "hitz egiten" dute.

Materialak amatu erakusketa Islak "alde diskurtsibotik" haratago joan nahi du. "Suely Rolnik teorikoak diskurtsotik haratago gorputzaren jakinduria bat dagoela esaten du eta nik ideia hori jaso dut asko harritu ninduelako artistek nola konektatzen duten haien lanekin. Nola enbalatzen eta desenbalatzen dituzten haien lanak, nola uki-

'UHOLDEAK: MATERIALAK AMATU' APIRILAREN 16RA ARTE EGONEN DA IKUSGAI, IORTIAN

tzen dituzten, nola azaltzen dituzten haien teknikak...". Lanek kontaktzen dutena baina zerbait gehiago dago obra horietan. "Amatasun hori espazio horietan ere bazegoen; artistak bere obrarekin duen amatasuna". Erakusketa nolabait azaldu behar zela iruditu zitzaion. "Kasu guztietan eman zen, modu oso partikularrak dira, ez dena artista guztiakin ematen".

Erakusketa hiru ardatzetan banatzen da: lehenengoa gorputzaren materia; bigarrena gehienbat emakumeek bizi duten zaintzaren eta amatasunaren krisi psiko-afektiboa, eta, azkena, heriotza eta nola zaindutako izakia gorputzaren memoriaren bidez oroitzen den. "Aurkezpenean ibilbide bat proposatu nuen Zarys Falconen lanarekin hasten dena eta hiru ardatz hauengatik pasatzen dena, baina ziklo bat denez, bizitzaren zikloa, beste aldera egin daiteke ere. Proposamen bat baino ez da".

Uholdeak

Bost artisten lanarekin osatutako *Materialak amatu* erakusketarekin batera Uholdeak programaren barruan arte disziplina desberdinetako ekimen gehiago izanen dira. Martxoaren 3an, aurkezpenaren egunean, eta Filmoeteka Nafarroan egitasmoarekin bat eginenez, Helena Taberna zinemagile altsasuarraren *Nerabe* eta *La Mujer de Lot* film laburren proiektzioa eta solasaldia izan zen Iortia kultur gunean. Hurrengo ekimena martxoaren 17an, ostirala, 19:00etan, izanen da, eta Zarys Falcon artistak M-A-T-E-R-N-I-D-A-D performancea egingen du. "Musika talde bat dauka eta arte eszenikoan ahotsarekin esperimentatzen du". Sehaska kantak, otoitz abestiak eta abar bilduko ditu.

Martxoaren 21ean eta 28an, astearteak, 17:30ean, Nerea Baldak gidatutako Ama-irakurketa eta idazteka saioak izanen dira. "Gaur egun euskaraz amaren inguruan lantzen diren testuetatik abiatuta idazketa pertsonala eta individualera gidatuko du Nerea, erakusketako gaietan oinarrituta: kontrasteak, ambivalentzia emozionala zaintzaren aurrean...". Egitasmoaren barruan ere ikastetxeetan lantzeko material didaktikoa sortu dute.



Pello Altzelai eta Kleo, ETB1eko Jateko Modukoa saioko afarian. ETB

"Ni ez naiz halakoa. Azkenean, paper bat zen"

Pello Altzelai Karasatorre etxarriarrak ETB1eko Jateko Modukoa programan parte hartu zuen. Esperientziarekin oso pozik dago, "programakoek lanketa oso ona egin dutelako eta emaitza ona" izan delako. Saioa ikusterakoan "barre asko" egin zuen

Maidar Betelu Ganboa ETXARRIARANATZ

1 Ez da ohikoa sakandar bat ETB1eko Jateko Modukoa bezalako saio batean ikustea. Mutilak, are gutxiago. Nola animatu zinen?

Aurretik Asier Arregi lakuntzarrak ere aritu zen. Programara gonbidatzeko mezua Instagram bidez iritsi zitzaidan. Lagunekin kontsultatu eta izena ematera animatu ninduten, esperientzia polit bat izango zelakoan. Halako programen helburua ikusleei tarte umoretsu bat eskaintzea da, eta helburu horrekin joan nintzen, ongi pasatzera.

2 Saioak sukaldaritzaren eta harremanak jorratzen ditu. Lau lehiakide zarete eta horietako batek beste hiruren artean gustukoena aukeratu behar du.

Txantreako Gorkak, Gasteizko Adrianek eta nik Kleok gustuko dituen platerak kozinatu behar genituen. Berak, nork prestatu zituen jakin gabe, puntuatu behar zituen. Eta puntu gehien zitue-

narekin afaltzera joan zen. Bestalde, berak lehen begi kolpean gehien gustatu zitzaion mutila aukeratu behar zuen eta, gu hirurak ezagutu ondoren, gustukoena zein zuen berretsi. Afarian jakiten zen hori.

3 Zure menua puntuatuena izan zenez, Kleorekin afaldu zenuen. Arraina (zapoa), txekor mihia eta donut healthy edo osasuntsua prestatu nuen. Ez zen menu sinplea, baina ongi atera zen.

4 Nahiz eta Kleoren aipamenean agian beste alde batetik joango zela iradoki, hiruren artean aukeratu zintuen.

Bakoitzak bere papera landu genuen. Nire papera, Kleok esan bezala, gazte "heldugabe" batena zen, oso erromantikoa. Kleok beste bide bat hartzea ez zen arraroa, Adirerekin ustez *feelinga* zuelako, baina nire alde egin zuen.

5 Jateko Modukoan ikusi genuen Pello horrelakoa al da?

Uste dut galdera hau mundu guztiari interesatzen zaiola. Ez dakizu telebistan ikusten duzun pertsona, eta hortik kanpokoa, berdina den edo ez.

6 Eta berdina al da? Edo gidoi bat antzestu zenuen?

Gidoia baino, paper bat eman ziguten eta gure sormenaz pertsonaia sortu eta gure paper hori ahalik eta esageratuen egiten saiatu behar ginen. Hori da jendea gustatzen zaiona: esagerazio bat, umorea eragingo duena. Ni ez naiz saioko pertsona esageratu eta erromantikoa. Ez naiz halakoa. Paper horretan sartu beharra genuen eta pertsonaia sortu, morbo hori.

7 Beraz, Pello ezagutu nahi duenak zuregana gerturatu behar du.

Hori da. Batzuek agian nire irudipen txar bat izango dute, nire pertsonaia batzuetan pasatzen baitzen. Benetan ez naiz halakoa. Azkenean paper bat da.

8 "Etxarriar batek nola egingo du negar..." zioen Txantreakoak. Aurreiritziak.

Bai. Lehen aipatutakoa, arraroa da sakandar bat hain irekia izatea; apustu bati ez diogu inoiz ezetz esaten... Apustuarekin hori irudikatu nahi nuen. Esan nien: "etxarriar bati ez diozu inoiz apustu batean irabaziko".

9 Bada, apustua irabazi duzu: Europa jatekoean otordua.

Apustua irabaztearekin beste guztia berdin zitzaidala esan nien, gure urgulua irudikatzeke. Oraindik ez gara bazkaltzera joan, baina Gorkari galdetuko diot ea noiz, apustua bete behar baita.

10 Kleorekin harremanak segida du?

Gainontzekoekin bezala, elkar ezagutu genuen eta giroa sortu zen. Agian maitasuna ez, baina harremana sortzen da.

11 Bizitako esperientziarekin kontentu zaude?

Bai. Saioa ikusterakoan barre asko egin nuen. Iruditu zitzaidan programakoek lanketa on bat egin zutela, dibertigarria izan zela. Jende gutxi zekien saioa grabatuta nuela, baina orain Sakana guztia enteratu da. Apurua nuen, jendeak bikote bila edo ezaguna egitera joan naizela pentsatuko zuelakoan, baina ongi pasatzera joan nintzen. Saltseoa beti gustuko izan dut. Fisioterapeuta ikasketak egiten ari naiz, baina arte eszenikoekin zalantzan egon nintzen.

DISEINU^A GRAFIKOA
MAKETAZIOA KARTEL **GINTZA**
PAPER

KOMUNIKAZIOA

IRUDI KORPORATIBOAK

EGUTEGIAK AGENDAK

ROLL-UPAK JATETXE ENPRESA **EUSKARRIAK**

PEGATINAK UDAL BULETINAK

LIBURUAK **WEB DISEINUA** BISITA TXARTELAK

FORMATU HANDIKO EUSKARRIAK **LONAK APLIKAZIOAK**

SARE SOZIALAK ALDIZKARIAK **PUBLIZITATEA**

PERTSONALIZATUTAKO EUSKARRIAK

gk

DISEINU GRAFIKOA
 WEB DISEINUA
 KOMUNIKAZIOA

619 821 436 · 948 564 275
 info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1. Altsasu